



ARGIA



INDEPENDENTZIA ESKURA

HERRI BATEN INDARRA


ESPAINIAKO ESTATUAREN INDARKERIA
GAINDITU DUTE KATALUNIARREK BAT EGINIK



Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan
egin beharreko lanen
egutegia, **saso**i bakoitzari,
hilabete bakoitzari eta
ilargialdiari lotuta:
baratzean, fruitu arboletan,
lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin
ditugun jasotzeko aukera
ematen du agenda honek.

**LIBURUA
ESKURATZEKO***

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda



*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Wall Streetetik datorren demokrazia berria

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Ivan Giménez
- 19 Koldo Aldalur
- Itxaro Borda
- 20 Angel Erro



Urriaren 1eko Kataluniako gertaerei tarte berezia eskaini diogu ARGIAren zenbaki honetan: Xabier Letonaren analisia, iritzi artikulatuak...

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 DENBORA-PASAK
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA: ZINEMALDIA
- 52 ARGI-KONTRA: NICOLÁS OLEA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: JAVI JULIO

SAKONEAN

- 12 | Francisca Rodriguez: "Argi utzi dugu gure feminismoa nekazariena izango dela" / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | Kataluniako erreferenduma: analisia, irudiak eta iritziak
- 30 | Tantirumairu ikastola: Eskola jasangarria helburu / Garazi Zabaleta
- 32 | Green Capitaletik, Squat hiriburura: Zer gertatzen ari da Gasteizen? / Mikel Buruaga
- 36 | Errekaleor: Euskararen arnagunea itoko du Gasteizko Udalak auzoa eraisten badu / Beñat Garaio
- 44 | ... bi zitroi doratü / Itxaro Borda
- 47 | Sagarrak eta laranjak / Dabi Piedra

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axiar Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginaz, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



Gipuzkoako Foru Aldundia



PANORAMA

Kaxmirren borroka estalia

70 urte bete dira Indiako deskolonizazio prozesua burutu zela. Kaxmirreko biztanleentzat, ordea, data horrek beste zatiketa bat eragin zuen. Egun Pakistan, Txina eta Indiaren artan banatuta daude. Ordutik gatazkak ez du etenik izan, eta iaztik, Indiaren menpeko Kaxmirren, beste oldarraldi bat ezagutu dute. 145 zibil, 138 militante kaxmir eta Indiako armadako 100 kide hil dira protesta eta tiroketetan, zaurituak milaka dira; nazioarteko albisteetan gatazka ia oharkabea igarotzen ari bada ere. Irudian, aurpegia estalita duten Srinagar herriko gazteak; zibil eta militante kaxmirren hilketak salatzeko, manifestazioetako batean Indiako armadarekin sortutako istiluen ostean.

Argazkia: Violeta Santos Moura · Testua: Axier Lopez



Espainiako Correos posta zerbitzuak uko egin dio ostiralean *L'Eco de Sitges* astekaria harpidedunei banatzeari.



L'Eco de Sitges

"Correosek ez die *L'Eco* harpidedunei bidali erreferendumerako material jotzen duelako. Non da prentsa askatasuna?"

@lecodesitges



Carles Iratxak

"Argi dago posta zerbitzu konpainia publiko hauek ez dutela lekuri XXI. mendeko Kataluniako Errepublikan"

@cspbcn



Jaume Castaño

"Geroz eta konbentzituago nago jainkoak hautatuak izan garela, zerbitu berri eta politaren alde borrokatzeko aukera daukagula, eta beste batzuei ez"

@jaumecst



ECUADOR ETXEA

Bizkaiko zahar egoitzetako gatazka konpontze bidean

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

330 egunetik gora egin dituzte greban langileek. Iraila bukaeran ELAK adierazi zuen hiru patronaletako batekin, Gescarekin, akordioa sinatu zutela. Aldarrikapenen %98 inguru ziurtatu zuten. Bigarren patronal batekin akordiora iritsiko balira ia urtebeteko greba amaitutzat emango lukete.

Soraya García zahar egoitzetako sektoreko delegatua da. Haren ustez ez da lan gatazka izan, genero gatazka baizik. Ia langile guztiak emakumeak dira eta delegatuaren ustez emakume izateagatik lan baldintza kaskarrak dituzte eta begirune eza nabarmena izan da. Honela dio: "Zuk imajinatu esaldia: 'Hau irabazten

duzue senarraren osagarri zaretelako'. Bati esan nion, 'baina zer, kontratuan senar bana eman diguzue ala?'. Emakumearen aurkako errespetu falta da esatea gizon baten mende dagoela bere soldata. Emakume horrek egun osoko jarduna du, 1.700 ordu urtean. Guztiz sexista da. Gure enpresetan galera handirik ez dago, gizonen enpresak (ekoizten edo eraikitzen dutenak) gelditzen badira bai. Gurean gutxieneko zerbitzuak %90 dira, egunez eta gauez %100. Galera ez da hainbestekoa eta enpresak askoz denbora gehiago iraun dezake. Emakumeenak sektore prekarioenak dira, soldata kaxkarrenak, gizonen eta emakumeen arteko arrailak handia izaten jarraitzen du. Oso argi dago emakumeen gatazka dela. Beste gatazka batzuk azkarrago konpontzen dira".

"Bakea biolentzia eza dela ulertzen da"

ARANTZA URKAREGI, FORO SOZIAL IRAUNKORREKO GENERO LANTALDEKO KIDEA

"Bakeaz hitz egiten dugunean ulertzen da bakea biolentzia eza dela; baina ETaren edota Estatuaren biolentzia ezarekin oso lotuta ulertzen dugu. Mahaigaineratu nahi izan dugu gure herrian egon den biolentzia askoz zabalagoa izan dela. Emakumeok hainbat esparrutan jasaten ditugun biolentzia sexistak kontuan hartu behar ditugu".

ARGIA.EUS (2017-10-02)



FAUNA PUBLIKOA

"Kanada-Quebec edo Erresuma Batua-Eskozia eredu baliogarriak izan daitezke"

Iñigo Urkullu, EAeko lehendakaria (Facebook)

Kita ezazu, kita ezazu



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria


Jaun Barua iragan apirilaren buruan bezala dabil Iñigo Urkullu azken asteetan, hark bezala present baitu Katalunia; "present espirituan -kantatu nirekin- manka besoen artean" (bis). Ehunka polizia atera direnean katalanak masakratzera, nazioartea asaldatur eta, sumatzen dut, lehendakariari bozka eman zioten euskal herritar asko ere bai; orduan, momentu preziso horretan, erditu du komunikatu bat, antza handia daukana agure-aurpegia daukaten jaioberriekin.

Beste zerbaite espero zen. Quebec edo Eskozia, errepassatzen dugu testuan pixka bat harrituta; baina Espainia izan gabe Kanada edo Erresuma Batua. Espainia izanda Espainia testikular hau. Espainia izanda jendeen gainetik pasatzeko begiramenik ez duen martimulo bat. Hori ezin dela badaki Urkulluk. Hori ezin dela badaki, partiduaren minutu honetara iritsita, emaitzari begiratzen dion edonork.

Baina gero beste partidua dago, letra larriz idazten dena, Alderdia, eta klaro, etxe horretan zenbakiek beste zerbaite diote: Madrilgo giltza eskuan, Hego Euskal Herria poltsikoan eta bizpahiru urte aurretik zukua ateratzeko. Kataluniako errebolta demokratikoa da, epe motzari begira ari diren jeltzaleentzat, desordutan etxera bisitan datorren lagun hori; ez diozu atea muturrean itxi nahi, baina joder, orain etorri behar zuen?

Hurrengo asteetan Bartzelonatik etorriko da nahikoa kalapita etxeko politikan egiten direnak eta ez direnak despistatzeko, baina uneren batean Sabin Etxeak fitxa mugitu beharko du. Rajoy babesten jarraituko du? Akaso ez da momentu txarra Jaun Baruari kantuan egindako eskaria errepikatzeko: "Jauna maite banauzu erraiten duzun bezala, kita ezazu, kita ezazu Erregeren zerbitzua; eta maita herria, ukan dezadan plazera".

EZ HANKA EZ BURU!



AOR

ANALISIA



Israel eta Kurdistango banderak Erbil independentziaren aldeko manifestazio batean irailaren 22an.

Beste erreferenduma



Axier Lopez

@axierL

ARGAZKIA: AZAD LASHKARI / REUTERS

Ekialde Hurbila aldatzen ari da. Ohi bezala, odolez, eta kanpoko interes ekonomiko eta geo-politikoaren menetara. Arabiar udaberriekin hasitako aroak, gerra eta eskuhartze inperialisten garaia utzi zion lekua –Siriako guda ikurrik mingarriena izanik–. Aktore politiko berriak eratu dira, aliantzak apurtu eta berriak sortu, baita mapan, *de facto*, aldaketak eragin ere. Eta horretan kurduak zeresan handia ematen ari dira. Orain 100 urte koloniek marraztutako mugek herri kurdua lau puskatan bereizi zuten: Turkia, Siria, Irak eta Iran. Egun lau estatu horiek gerran, maila batean edo bestean, esku-hartzea izateak, kurduak ez die ez-ikusiarrena egiteko aukerarik utzi.

Estatuak gabeko naziorik handienak mundu osoko azaletara egin zuen salto. ISISen kontrako gudan Rojava-ko gerlari kurduen, emakumeak nagusi, kemenari esker. Eta egun, *de facto*, Siria barruko zonalde autonomoa –independentea praktikan– osatu dute. Baina berriki, Iraken menpeko kurduak berenganatu dute arreta. Munduko petroliodun zonalderik aberatsenetakoa da Hego Kurdistan, urtetan Barzani eta Talabani familien artean banatutako pastel goxoa. Masoud Barzani da pre-

sidentea, eta berak bultzatu du independentzia erreferenduma, gainerako kurduen kontrako iritzia aurre eginez; baina sheriffaren ezkutuko oniritziarekin: AEBak. Kurduak masiboki erantzun dute: %72ko parte-hartzea eta %92k estatu independente bilakatzea hautatu zuten. Halere, Barzanik berak onartu du ez duela independentzia aldarrikatuko, Irakeko gobernuarekin negoziatzeko argudio gisa erabiliko duela emaitza.

Irakeko gobernuak, Rajoyren eskola antzekoa izanik, "konstituzioaren kontrakoa eta baliogabea dela dio hasieratik. Hego Kurdistanera, Piolinen itsasontzietan, milaka polizia edo militar bidaltzea alferrikakoa da, ordea. ISISen aurkako borrokan trebatu eta ondo armatutako kurduen armada lukete aurrean. Horregatik, Irakek egin duen aurrea izan da kurduak jazarzen zailduak diren Turkia, Iran eta Siriako gobernuak laguntza eskatzea; mugak itxi eta petrolioaren eros ez diezaioten. Iraken eta Turkiaren armada Irakeko mugara eramango dutela adierazi dute. Momentuz, nazioarteak bizkarra eman dio erreferendumari. Israel salbu. Bai, Israel sionista bera. Badakizue, "nire etsaien etsaia dena nire laguna ei da". Xake geopolitikoaren piezak mugitzen ari dira. Kurduak bizi nahi dutela ozen adierazi dute berriz ere, baina, tamalez, beste batzuen interesen peoiak baino ez dira joko maltzur honetan.

EKONOMIAREN TALAIAN

Zergadunoi lapurtzen digute



Juan Mari Arregi

Gogoratzen duzue zer esan zuten Espainiako Gobernuak bankuen erreskateaz? "Zergadunari ez zaio euro bakar bat kostako". Bankuek eta aurrezki kutxek laguntzak itzuli behar-ko zituztela zioen. Ba, gezurra esateaz gain, zergadun bakoitzari 2.000 euro inguru lapurtu dizkigute. Argi eta garbi. Albiste hori oharkabea izango da Kataluniako prozesuaren kontrako erasoaldi ofiziala dela-eta.

Hain zuzen, Espainiako Bankuak galdutzat dauzka bankuen erreskate publikorako erabilitako 40.078 milioi euro. Hamalau finantza entitatek jaso zuten erreskatatuak izateko edo berriz kapitalizatzeko dirua FROB bidez –Espainiako Estatuaren jabetzako organismoa–; guztira 54.353 milioi euro. Espainiako Bankuaren kalkuluen arabera 3.873 milioi berreskuratu dira eta soilik beste 10.402 milioi berreskuratzeko "aukera" duela uste du. Baina abalak, bermeak eta banku txarrantzako kapitalak gehituta kostua askoz handiagoa da. Kontuak aterata esan liteke zergadun bakoitzari 2.000 euro lapurtu dizkigutela. Diru horrekin ez litzateke beharrezkoa izango murrizketarik Hezkuntzan (14.000 milioi euro), Osasungintzan ere ez (10.000 milioi euro), ezta langabetuei 16.000 milioi euro kentzea ere.

Erantzukizunak garbitu behar dira: finantza entitate bakoitzeko administrazio kontseiluetan, Espainiako Bankuan, Europako Banku Zentralean... Eta jakina, Espainiako Gobernuak ere bai. Bereziki Rajoyk dauka ardura handia: lehenik gezurra esan zigun, eta orain, lapurreta horren aurrean eskuak garbitzen ditu esanez gordailugileak defendatu dituela. Euskaldunok badugu beste arrazoi bat gure subiranotasun nazional, sozial, ekonomiko eta politikoaren alde borrokan segitzeko.



ARITZ LOIOLA

Hilketa matxista

SESTAO. Irailaren 28an gertatu zen. Noelia Noemi 32 urteko emakumea etxeko sofán aurkitu zuten hilda, labankadak zituela. Haren 33 urteko bikotekideak bere buruaz beste egin zuen etxebizitzatik jauzi eginda. Ertzaintzak indarkeria matxistarekin lotu du hilketa, lehen ikerketen arabera gizonak emakumea labankadaz hil zuen. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arabera, gizonak ez zeukan genero indarkeriaren salaketarik. Sestaoko Udalak, Emakundek eta mugimendu feministak hilketaren gaitzespen adierazpenak egin zituzten.

Etxegabe bat hil da Barakaldon

Xalba Ramirez
@xalbaram

Etxegabekoen alde lanean aritzen den BesteBi plataformak adierazi duenez, Hamza da Barakaldoko kutzazain batean hilda aurkitutako 34 urteko pertsona. Aljerian jaioa zen eta bi urte zeramatzan Barakaldon. Pasaporterik ez zuenez lortu, ez zegoen herrian errolatuta.

Etxegabeak

Etxegabeen plataformak egin duen azken datu bilketaren arabera, Barakaldon 19 pertsonak egiten dute lo kalean, Bizkaian 163 dira, eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban 285 lagunek ez dute etxerik.

Salaketa

BesteBi plataformak salatu du 2014an Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu ziola urtebetean etxegabeen arazoa konpontzeko estrategia orokorra prestatzeko, baina oraindik ez da ezer abian jarri.

Ikusezinak

Plataformak erakundeek ez ezik herritarrei eta hedabideei ere egin die dei. Lehenengoei etxegabeak ikusezin ez bihurtzeko eskatu die eta bigarrenengoei halako gertaeren berri emateko eskatu die.

ERREFUXIATUAK



%13,4

da portzentajea.

Duela bi urte 1.000 errefuxiatu jasoko zituela hitz eman zuen Eusko Jaurlaritzak eta 134 jaso ditu EAEk.

9.000 errefuxiatu jasoko zituela esan zuen Espainiako Gobernuak eta %13an geratu da. Frantziak 20.000ko zifra ezarri zuen eta %22an geratu da.



'H28'-K AGUR

2015ean sareratu zen H28 aldizkari satirikoa. Orain amaierara iritsi da, proiektuan dabiltzanek iragarri dutenez labetik atera berri den 28. zenbakian. Komikien eta satiraren bidez aktualitateari kritika zorrotza egin diote denbora honetan.



SEI HIZKUNTZA OIHANEDERREN

Sei hizkuntzaz arituko dira Gasteizko Euskararen Etxean Hitz Adina Mintzo jardunaldietan ikasturte barruan.

Txerokiera, frisiara, esperantoa, zeinu hizkuntzak, kokama eta kaxubiera aztertuko dituzte.



OTAGIREN KASUA

Fusilatzea argitzeko eskaerari ezetz esan dio espainiar justiziak, 42 urteren ondoren. Tramitera ere ez dute onartu. Azpeitiko Udalak eta familiak frankismoaren krimenen kontrako Argentinako kereilara batuko dute kasua.

Hona demokrazia berria

Wall Streetetik etorria:

Dolar bat = Boto bat



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Dio Ammar Belhimer abokatu eta ekonomialari aljeriarrak finantzen munduko burtsa nagusia den Wall Streetek irudikatzen dituela neoliberalismoaren bi titiak: espekulazioa eta zorpetzea. Ordena neoliberal nagusitu da munduan, bera da 90eko hamarkadatik inolako ez kontra-boteretik eta ez araurik onartzen ez duen jainko berria. Munduan ez da salbuespenik geratu finantza merkatuen kontrolpetik.

“Munduaren bihotzaren jabe egin da Diru jainkoa eta hor datza lehenbiziko terrorismoa, esan du Frantzisko aita santuak. Ordena neoliberalaren oinarrian dagoen Washingtoneko Kontsentsuaren arauak definitzeko parafraseatu behar bagenu Moisesi Sinai mendian Jainkoak emandako Hamar Manamenduak, integritasmo neoliberalaren dekalogo txundigarria osatuko lukete: dena pribatizazio eta liberalizazio ekonomiko, banku zentralak hazkundeaz ahaztuta inflazioa eta gehienez ere prezioen egonkortasuna ez den beste ezeri erreparatzen ez diotenak, errealitatearen deformazioa, ebaluazioen jainkotzea, justiziarekiko mesprezua, kasta baten nagusitasuna, sekuritarismoaren ametsa...”

Ammar Belhimer (1950) mintzo da horrela *Wall Streeten hamar manamendu berriak* liburuan. New York, Londres, Brusela edo Shanghaiko pulpituetatik urrun Aljerren argitaratu duenez, ez du gure artean oihartzun handiegirik izan. Aldiz, zenbaiten ustez Belhimer ausartu da XXI. mendeko kapitalismoaren analisia egitean Thomas Pikettyren erradiografia famatuaren mugak haustera. Beste hainbat libururen artean *Terrorisme, face caché de la mondialisation* publikatu berri duen Richard Labévièrek eman dio oihartzuna Europan.

Zuzenbidean doktore, unibertsitateko irakasle eta kazetaria da Belhimer. Zenbait hedabideren sorreran parte hartua da, agintarien zentsura sufritua ere bai.

1998ko liburu batean aztertua zuen Aljeriaren kanpo-zorra eta 2016ko *Udaberriak basamortuetan*en Tunisiatik Siriarira mundu musulmana inarrosi duten *udaberri* famatuak analizatu ditu.

Aljeriatik begiratuta, Belhimerrek ikusten du kapitalismo finantzarioak azken muturreraino eramanez duela ekonomia arau gabetzea, azkenean geratzeko munduaren jabe absolutu. 1996an Davosen, Munduko Ekonomi Foroaren baitan, Hans Tietmeier Alemaniako banku zentralako buruak iragarri zuen gisan: “Finantza merkatuek gero eta gehiago jendarme lana egingo dute. Politikariek ulertu behar dute hementik aurrera finantza merkatuen kontrolpean daudela eta ez bakarrik norbere herrialdeko eztabaiden menpe”.

Zazpi urte lehenago, 1989an aipatu zen lehenbizikoz *Washingtonen Kontsentsua*, Sobiet Batasunaren blokea hondoratutakoan mundu osoari aplikatzeko bide horri bilakatu zutena. Nazioarteko erakunde eta itun finantzierok geroztik formula bera aplikatu diote larrialdian dagoen edozein herrialderi: sektore publikoa desegin, zerbitzu publikoak pribatizatu, subentzioak galarazi, enpleguan malgutasuna eta prekariotza ezarri, oinarritzko beharretan ere (ura, hezkuntza, osasuna...) etekinaren legea nagusitu.

Ipar aberatseko langileok formularekin nozitu dugu gure lanpostu askoren deslokalizazioa. Hego aldetik begiratuta, ordean, Belhimerrek ohartarazten



digu haiek ere ez dituela aberastu deslokalizazioak. Enpresak bai eraman dituzte Hego aldera baina horiek sortutako balioa, aberastasuna, berriro Iparre-eramateko hainbat tresna erabilia: atzerriko inbertsioen zerga gabetzeak, zor publikoaren kibraketa...

Islandian bezala, agintariei “Ez” esan

Munduko elite aberatsenaren zigorgabetasuna noraino iristen den azpimarrazteko, Belhimerrek aipatzen du munduko banku handienetakoa den Goldman Sachs-eko lehendakari Lloyd Blankfeinek kazetari bati esandako hura: “Ni ez naiz bankero bat baizik, Jainkoaren lana egitera behartua”. 2008ko krisitzararen beroenean botatutako harropuzkeria.

Neoliberalismoak ondorio politiko nagusien artean ekarri du botere guztia eskuratu duen oligarkiaren nabarmenkeria, “negozio munduaren eta politikaren arteko inzezo eten gabea”. Bush aita-semeetatik hasi eta Silvio Berlusconi-egandik segituz Donald Trump-eraino azken 30 urteotako zerrenda osatzen hasia ez du merezi. Errusian eta bestetan begiratu gero, eredu mundu osoan nagusitu dela ezin uka.

Kontua da neoliberalismoaren logika bete-betean sartu dela armadetan ere. AEBetako militarren ikerketak darabatzan DARPA agintziak, esaterako, burtsetan petrolio merkatuaren espekulaziorako erabiltzen diren aurreikuspen tresnak darabiltza bere estrategiak finkatzeko. Horrela, “globalizazioaren



Politico hedabidetik hartutako argazkian Hillary Clintonen ondoan Lloyd Blankfein Goldman Sachs bankuko buru nagusia. Berea bezalako finantza erakundeek eragindako krisi betean esan zion kazetariari: "Ni ez naiz bankero bat baizik, Jainkoaren lana egitera behartua". Oinezko jendearengandik gero eta urrunago bizi den eliteak lortu du, dio Ammar Belhimerrek, demokraziaren mamia eraldatzea, "buru bat = boto bat" izatetik "dolar bat = boto bat" bihurtzera.

bideragarritasuna eta egongorasuna" AEBen interes nazional hil ala bizikoen mailan kokatu dute, hau da, gerra justifikatzen duten interesen mailan.

Ekialde Hurbileko gerra berrien atzean ere, esan du Belhimerrek *Reporters* aldizkari aljeriarrean, dago petrolio konpainiek eta arma saltzaileek osatutako munduko aliantza, haiek agintzen baitiete zer egin bai Mendebaldeko gobernuai eta bai petrolio ekoizleei. "Gerra horiek petrolioaren prezioa igotzen dute, negozioaren marjinak eta konpainien etekinak bezala. Estatu Batuek gerrak abiatu dituzte ez prezioa merke edukitzeko baizik eta petrolioarek garesti atxikitzeko".

Hasi bai baina amaierarik ez duten gerra horien bidez mundializazioak, dio Belhimerrek, nazio-estatuak suntsitzen ditu horien orde ezartzeko merkatuek

antolatutako gobernantza globala: "Estatuen papera hartu duten subjektu berriok, finantza enpresa subiranook, mamitzen dute eredu mafioso orokortu bat, zeinaren ezaugarriak baitira metropolian pentsamendu ekonomikoaren militarizazioa ezartzea eta atzerrian ekonomia bortxaz itxuraldatzea".

Zer daukagu gaur? Sistema demokratiko berria demokrazia totalitario bat da. *Dolar bat = Boto bat* araua nagusitu da, terrorea halabehar bihurtuz, ultra-eskuindarra indartzen, ezkerreko galduta, klase ertainak gain behera, *morroaren* sindromea edonon...

Etorkizuneko arrisku nagusiak? Enpresa birtualak eta finantza sistemak dirua gero eta gehiago espekulaziora bideratzea, paradisu fiskaletatik internetez kudeatutako funtsen bidez. 2035a bitartean amaituko omen da inperio

amerikarraren nagusitasuna, mundua polizentrikoa izanen da. 2050 ingururako merkatua ez da aseko urruneko kontrolarekin eta herritarren artean sustatuko da nork bere burua kontrolatzea industriak horretarako sortutako objektuen bidez. Horrela aurreikusten du Belhimerrek mundua pasako dela merkatuzko demokraziak edukitzetik demokraziarik gabeko merkatua izatera: "Planeta mailako merkatuak urratuko ditu demokraziaren legeak, demokrazia izatez lokala baita".

Itxaropenik? Islandia aipatzen du beti Belhimerrek. Kanpo zorraren krisiaren erdian, 2010ean Islandiako herritarrek "Ez" handi batez erantzun zieten zor ez legezkoak pagarazi nahi zizkieten politikariari. "Krisiari aurre egiteko lehenbiziko erreakzio burutsua izotzetatik iritsi zitzaigun" dio desertu ertzetik. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

50 urtez elkarrekin

Francisca Rodriguez, nekazaria

«Argi utzi dugu gure feminismoa nekazariena eta herritarra izango dela»

La Vía Campesina mugimenduak mende laurdena darama martxan eta uztalean Euskal Herrian egin zuen bere ibilbideko zazpigarren kongresua. Derion bildu ziren munduko hamaika txokotako nekazarien ordezkariak, tartean, Francisca "Pancha" Rodriguez txiletarra, emakume eta nekazarien babeslea. Herrion kontzientzien gainean zama handia dagoela uste du, eta ez du erronka handia gutxietsi nahi, baina Pinocheten diktaduraren aurka borrokatu zenak oraindik ez du itxaropenik galdu.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nolatan hasi zinen aktibismoan?

Ufa, aspaldi izan zen hori. Gaztetan. Neure kidea, neure senarra, Nekazarien Konfederazioko gazteen arloko arduraduna zen Ranquil-en, eta uste dut horrek izan zuela zerikusirik. Nekazal erreforma betean geunden Txilen, hain justu ere oraintxe bete dira 50 urte legea onartu zenetik, pasa den udan. Herri proiektu bat eraikitzen ari ginen, Allendek presidente-kargua hartuz geroztik. Pasioz beterik geunden, eta uste dut horregatik ekin geniola erronka historiko horri, herriaren gobernua eraikitzeari, nahiz eta ez zuen iraun mila egun baizik. Hortik gatoz gu, garai heroiko horietatik: gazte pribilegiatuak izan ginen, bestelako etorkizun bat amestu genuen, eta diktadura militarrek bat-batean eten zuen hori dena.

Nola?

Allendek kargua hartu eta berehala jarri zen sedizioa martxan. Gaur egun Venezuelak bizi duen berbera bizi izan genuen guk: eskuin izugarri oldarkor

bat, terrore-kanpaina erraldoi bat, elikagaien hornikuntza moztea... Hortxe konturatzen zara zer-nolako pisua eta balioa duten elikagaiek munduan, nola erabil daitezkeen presioa egiteko eta zapaltzeko, tresna ikaragarri eraginkorra da. Eragin handia du: Txile erori zen, eta gero sozialismoa, eta gero Nikaragua, denak metodo berberarekin. Eta orain Venezuela dago mehatxupean.

Diktaduraren aurka borrokatu zinen.

Oso oroitzapen gogorrek dira, izugarriak, oso diktadura odoltsua izan baitzen, ez zegoen familiarik ez zeukanik kide edo senide bat kartzelan, desageraturik edo erbestean. Gero badaude bizi-rik iraun arren hilda moduan daudenak, neure neba, adibidez, lur jota dago, tortura lazgarriak egin baitzizkioten. Diktaduraren ondorioak azalean bizi ditugu oraindik.

Baina, sasoian, ez zenuten etsi.

Ez, aliantza garrantzitsuak eraikitzeko kapaz izan ginen, duintasunez eutsi ge-

nion, eta behin eta berriro aldarrikatu genuen nekazal erreforma artean egiteko zegoela gure herrian. Diktaduraren gau iluna amaitzeko borrokatu ginen, behin ere atsedean hartu gabe, eta azkenean iritsi zen demokrazia, ez ordeka nekazal erreforma. Gure ametsak zapuztu ziren, zeren, diktadurak prest utzi zuen

Francisca Rodriguez

Lo Espejo, Txile, 1946

Gaztetatik hasi zen Francisca Rodriguez borrokan. Lehenik, eraikuntza-lanean, herritarren esku zegoen Txile baten alde, eta ametsa lapurtu zietenean, amesgaiztoaren aurka erresistentzian. Nekazarien elkartetan jardun da beti, eta orain dela hamasei urtetatik, ANAMURI elkartearen kide aktiboa da: Txileko landako emakumeen eta emakume indigenen alde borrokatzen dira.



konstituzio bat, garapen kapitalista oso fuerte bati laguntzeko. Eta horixe gertatu da... Atzo, herri ausartzat gintuzten, herri antolatutzat, diktadura gogor bati aurre egin ziona; gaur, berriz, Latinoamerikako herrialde arrakastatsua gara, txikiena, munduaren amaiera, eta hala ere garrantzitsuena. Txilek ditu, gaur egun, indize ekonomikorik onenak eta indize sozialik txarrenak.

Nolako egoera ikusten duzu Latinoamerikan?

Gaur egun, kontra-erreformak dauzka, nekazal prozesu historiko guztiak lehengoratzten ari dira, Mexikotik hasi eta Txileraino, hain justu ere, kapitalak baliabide naturalak nahi dituelako, eta baliabide naturalak gure lurretan daudelako, gure komunitateetan. Gure lurrak hartzen ari dira, lurra jada ez da geurea, herrialdea ez da geurea. Meatzaritza, baliabideen erauzketa... puskaka ari dira herrialdeak eramatzen, herrialdeak saltzen ari dira. Sistema ekonomiko benetan maltzur baten aurrean gaude, eta aukera diruditenak mehatxu bihurtzen dira sarri.

Zeren premia ikusten duzu?

Guretzat nekazal erreformaz hitz egitea da herriek elikadura osasuntsua edukitzeko eskubideaz hitz egitea, lurra lantzeko eskubideaz hitz egitea, gure baliabide naturalen defentsaz hitz egitea. Eta eztabaidatzea geure bizitzeko moduaz, landa-eremuan osasun- eta hezkuntza-eskubidea edukitzeaz, geuri nekazariorio mesede egiten diguten errepideak edukitzeaz... Gaur egun, herrialdetik salgaiak ateratzeko eraikitzen dituzte errepide handiak eta gu, nekazariok, errepide horien artean hesituta gaude.

Herrialde bakoitzak bere begirada landu behar du, garapen nazionaleko begirada, kapital finantzario espekulatiboaren aurkakoa. Kapital horrek gure gobernuak zapaltzen ditu, gaur egun kapitalak eragin handiagoa dauka gobernuen gainean herriok baino. Galduta gabilta herriok, akituta. Hala ere, ez gaude garaituta, inondik ere. Beti esaten dudan moduan, ez dago ehun urte irauten duen gaitzik ez eta hori jasango duen herririk ere.

Horregatik ari zarete oraindik ere borrokan.

Txiki-txiki eginda gaude, horregatik



dihardugu CLOC (Latinoamerikako Landako Antolakundeen Koordinakundea) eta La Vía Campesina eraikitzen. Egunez egun, nekazal sektorea txikiagotzen ari da herrialde guztietan, baina hara non gero eta antolakunde gehiago dauden. Ez da antolatzeko gaitasun handiagoa dagoelako orain, baizik eta mugimendua zatitzen ari delako. Gu, ordea, CLOC-La Vía Campesinan hainbat antolakunde gara, baina bandera beraren pean goaz denok ibilian.

Zergatik da hain inportantea elkarrekin borrokatzea?

Gaur egun bizi ditugun une politiko hauetan, aliantzak dira gakoa. Guk argi daukagu, sektore gisa, bakarrik arituta ez dugula borrokarik irabaziko, horregatik eraiki behar dira adostasun handiagoak, eta uste dut hori egin dugula nazioartean, baina uste dut lurraldeetan bertan indartu behar ditugula sareak. Helburu edo interes berberak dauzkatenak artikulatu behar dira, besterik ez bada helburu hori lortzeko.

Esaten dute kapitalismoa dagoela krisian... zer krisi, ordea? Krisian gu gaude, kapitalismoa ez da krisian egon orain dela ez dakit zenbat hamarraldi. Kapitalak asmatzen ditu krisiak, bata bestearen atzetik, eta nor ateratzen da garaile? Gu ez, gu hor geratzen gara, lehen baino biluziago. Beraz, konfiantza berreskuratu behar dugu, eta itxaropena elikatu. Borroka globalizatu behar dugula, horixe da gure kontsigna, baina horretarako itxaropena ere globalizatu behar dugu.

Zer da CLOC eta nola abiatu zen?

La Vía Campesinarekin batera ekin genion bideari. Mugimendu horren sustaiak estu daude loturik Latinoamerikarekin, izan ere, lan handia egin genuen "deskubrimenduaren" 500. urteurrenean erresistentzia indigena, nekazari, beltz eta herritarra antolatzeko. Hala batu ginen. Geuk aldarrikatu genuen latinoook ez geneukala zer ospatu, baina gure burua geneukala deskubritzeko. Bost urtez aritu ginen kanpaina hori artikulatzen, eta konturatu ginen,



hura antolatzeke gai izan baginen, beste zerbait artikulatu genezakeela Latinoamerikako mugetatik kanpo ere, garai hartan indarra egiten ari ziren beste mugimenduekin batera, hala nola EHNErekin. Hala iritsi ginen munduaren nekazal artikulazio horretara. Sorrrera zirraragarria izan zen, helburu eta ametsak geneuzkan, baina garai hartan ez genekien La Vía Campesinak halako eragina izango zuenik munduan.

Ez bakarrik nekazari zaren aldetik, emakume zaren aldetik ere borrokatzen zara. La Vía Campesina sortu bezain pronto hitz egin genuen argi emakumeok. La Vía Campesina sortzen ari ginela, horixe izan zen eztabaida sutsuetako bat: ea zer balio emango zitzaion emakumeon lanari eta zer toki hartuko genuen prozesuaren barruan. Garrantzitsua izan zen hura, eta ez pentsa eztabaida samurra izan zenik. Gogoan dut emakume batek indar handiz hitz egin zuela sorrerako eztabaida haietan, eta iruditu zitzaidan ez geundela bakarrik, eta el-

karrekin lortu genezakeela hori, La Vía Campesinak sorreratik bertatik emakumeen parte-hartzeari garrantzia eman ziezaiola. Lortu genuen, bai, eta uste dut mugarri bat ezarri genuela. 1992an sortu zen La Vía Campesina, 1993an berriaz CLOC, eta hura sortzeko orduan ere, asko hitz egin genuen beste emakumeen prozesu hartaz.

ANAMURI sortu zenuten (Landako Emakumeen eta Emakume Indigenen Txileko Elkarte Nazionala).

Beste antolakunde baten ordezkari gisa nengoen CLOC-en, Ranquil-eko Konfederazioaren ordezkari moduan. Garai hartan barra-barra ari ziren sortzen emakumeen antolakundeak. Ez genuen nahi emakumeen antolakundetzat har gintzaten, geuk mugimenduaren parte izan nahi genuen, eta gainerako erakundeen mailan aritu. Eta baldintza horietan sortu genuen ANAMURI, emakumeen espazio bat. Hasieratik esan genuen ez ginela ghetto bat, gu geu eta geure kide emakumeak indartu nahi dituen espazio bat

baizik. Helburua, gainera, beste kideekin batera borrokatzea zen, mugimenduari ekarpenak egitea. Errebelde jaio ginen, mugimendu historikoko jarrera matxista guztiak iraultzeko asmoz, erakunde horietan oso logika patriarkalak egon baitira eta emakumeok bigarren mailan egon baikara. Guk nahi genuen parez pare eseri mahaian beste antolakundeekin, eta urte baten buruan lortu genuen eskubide osoko antolakunde izatea, aho-tsa eta bozka zeuzkana.

Landako emakumeak eta emakume indigenak biltzen zarete antolakundean.

Horrek ere badu bere zera. Hasiera batean, ANAMUR ginen, eta landako emakumeak ginelako elkartu ginen: nekazariak, artisauak, indigenak... Landamunduaren aniztasuna biltzen genuen. Baina, gero, emakume indigenek salatu zuten gizarteak betidanik baztertu eta ezabatu dituela, eta ez zirela berriro ikusezin izango. Hala, landako emakumeen eta emakume indigenen elkarte nazional bilakatu ginen, ANAMURI.

Bestalde, eztabaida sakonak izan ditugu emakume indigenekin, Latinoamerikako emakumeok gure buruari ezarri diogun zeregina delako gure burua feministatzat hartzea eta gure feminismoa eraikitzea, eta gure elkarteko emakume indigena batzuk ez zeudelako ados horrekin.

Mesfidantza zaio feminismoari?

Landa-munduan gauza izugarri gisa aurkeztu baitute feminismoa beti, beraz deabrua kendu behar izan diogu. Guk argi utzi dugu gure feminismoa nekazariena eta herritarra izango dela. Hiriko feministekin lan egingo badugu, haiek ondo jakin behar dute gu langile-klasekoak garela.

Gure feminismoa eraikitzen ari gara oraindik, edukiz betetzen ari gara. Adibidez, Paraguaiko kideek esan zuten feminismo herritarra eta iraultzailea izango dela gurea. Eraikitze-bide honetan harresiak eraitsi behar izan ditugu gure buruan eta gure antolakundeetan, eta erakutsi behar izan dugu gure jarduna feminista dela, emakumeen eskubideak ez ezik emakumeen interesak ere defendatzen ditugulako.

Latinoamerikako prozesu bat da hau. Europako kideekin konpartitu dezakegu akaso, baina La Vía Campesina mugimendu anitza da, hor daude muga kulturalak, patriarkatua modu ezberdinetan agertzen da, eta nork bere erabakiak hartu eta bidea egin behar du.

Hitz egin dezagun elikadura subiranotasunaz. Printzipio bat ei da, ez kontzeptu bat.

Kontzeptuz beterik gaude, sarritan hutsak, ezin ditugunak interpretatu ere. Printzipioak, ordea, defendatu egiten dira, eta printzipioei eutsi egiten zaie. Kubako kideek beste zerbait gehitu zioten definizio horri: printzipioak defendatu



Off the record: Trenaren bideak

Elkarriketa amaitu ostean, jaioterriaz galdetu diot Rodriguez, eta hauxe kontatu dit Lo Espejori buruz: "Garai batean, tren-geltoki garrantzitsu bat zegoen han. Hegoaldetik Santiago hiriburura zihoan trenak hantxe egiten zuen azken geldialdia, eta ispilu txiki bat ateratzen zuten bidaiari denek, apaintzeko. Horregatik jarri zioten izena". Orain, berriz, Lampan bizi da Rodriguez, Santiagotik iparraldera dagoen landa-eremuan, eta nekazariak erabiltzen zituzten trenbide-sareak kendu izana deitoratu du.

tu egiten dira, eutsi egiten zaie eta ez dira negoziatzen. Guretzat elikadura-subiranotasunak dimentsio hori hartu du. Ezin diogu mundu osoari eskatu halakorik, baina lurra zaintzen duten eta bertan bizi diren gure komunitateen oinarria da.

Elikadura-subiranotasuna eskubidez osaturik dago. Ez dago elikadura-subiranotasunik non eta ez dagoen lurra edukitzeko eskubiderik, hori bai, lurra lantzeko, ez lurra monokultiboz betetzeko edo higiezinak eraikitzeko. ■

artepan

Gure izaera, mamia

Merkatu-hobia

rudia: bi emakume ezkonberri irribarretsu. Eslogana: *Zuk dakizu zer nahi duzun / Que nadie te diga lo que quieres.*

Lesbiana baldin bazara, seguru asko Laboral Kutxaren bulego baten aurrean gelditu zara, iragarki horri begira. Agian, soineko zuriz jantzitako bikote horrekin identifikatu zara. Agian, ezkontzak ez dituzu gustuko, gay eta lesbianen heteronormatibizazioa dakartzatela uste duzu, eta ondorioz, kopeta zimurtu duzu. Hala eta guztiz ere, seguru nik lelo horrek zuretzat esanahi berezi bat dauka.

Zenbat aldiz esan dizute zein izan behar den zure nahia, nor desio behar duzun? Agian, oraindik ere zure amak behin eta berriro errepikatzen dizu aukeratu duzun bidea ez dela egokia, gizon batekin zoriontsuagoa izango zinela. Edo, zoriontsu ala ez, heterosexualitatea dela aukera zuzen bakarra. Agian, zure neskalagunarekin ezkondu zinen eta zure senideren batek ezkontzara ez joatea erabaki zuen, zure nahia onartzen ez duelako. Agian, egun hori zorionsua izan zen, maite duzun jendearen aurrean harrotasunez "Bai, nahi dut" erantzun zenuelako zure bikotekideari begira.

Iragarki hau diseinatu duen publizitate agentziak jakin badaki zer zentzu eta sakontasun duen esaldi horrek gay eta lesbianontzat. Askok eskertuko dute "gure burua" iragarki batean ikustea. Are gehiago, agian baten batek, iragarki horrek animatuta, banku horretan kontu bat irekitzea erabakiko du. Egongo da marketin estrategia horrek gogaituko duen LGTB jendea, hau da, enpresa batek gure borroka eta saminak hipotekak saltzeko erabiltzen dituela ikusteak. Dena dela, publizitate agentziak badaki iragarki horrek gay eta lesbianengan emozioa piztuko duela, ez dela oharkabea pasatuko eta,



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Iragarki hau diseinatu duen publizitate agentziak jakin badaki zer zentzu eta sakontasun duen esaldi horrek gay eta lesbianontzat. Askok eskertuko dute "gure burua" iragarki batean ikustea. Are gehiago, agian baten batek, iragarki horrek animatuta, banku horretan kontu bat irekitzea erabakiko du. Egongo da marketin estrategia horrek gogaituko duen LGTB jendea, hau da, enpresa batek gure borroka eta saminak hipotekak saltzeko erabiltzen dituela ikusteak

are gehiago, gure memorian gordeta geratuko dela. Ez al da hori publizitate estrategiaren helburu nagusia; arreta deitzea eta marka jakin bat balore batzuekin lotzea, alegia?

Publizitate agentzia horrek 90eko hamarkadan Ameriketako Estatu Batuetan *Subaru* kotxeen kanpaina gogoan izan du seguru nik. *Subaru* kotxeek lesbianen artean zeukaten arrakastaz ohartu ziren eta urte horietan ausarta eta arriskutsua izan zitekeen apustua egin zuten: komunitate lesbikoa merkatu-hobi estrategikoa zela aintzat hartzea. LGTB komunitateak ulertuko zuen eslogan bat aukeratu zuten: "It's not a choice. It's the way we're built". (Ez da aukera bat. Garen bezalakoak gara). "I am what I am". (Naizena naiz). Hainbat ikono lesbiko ere erabili zituzten: Martina Navratilova tenis jokalaria kanpaina baten protagonista bihurtzea eta *Xena, printzesa gerlaria* telesailari keinua egitea. Hurrengo hamarkadan *The L Word* lesbianen telesaileko protagonista batek, tenis jokalaria bera ere, *Subaru*-ren irudi bihurtzea erabakitzen zuen, armairutik ateratzea suposatzen zuen eslogan batekin.

Urte horietan, marketin aditu askok kasu hori aztertu zuten eta LGTB komunitatea aprobeztatu gabeko merkatua dela ondorioztatu zuten. Gaur egun "kapital arrosa" kontzeptua erabiltzen da LGTB komunitatearen merkantilizazioa deskribatzeko. Enpresa batzuek onartu dute "bezero bikainak" garela (gay eta lesbiana pribilegiatuak dituzte buruan, noski). Beste batzuek oraindik ez: lesbianak lagunduriko ugalketa kliniken bezero talde garrantzitsu bat gara, eta hala ere, kliniken iragarkietan emakume bakan normatiboak agertzen dira soilik. *Subaru*-ren moduko salbuespenez at, ez gara existitzen, inork ez gaitu interpellatzen. Aterako al gara inoiz Laboral Kutxaren iragarki orokor batean? ■

Hibridazioa: noiz ardoa eta noiz kalimotxoa?

Lagun artean garena probestuz, aitorpen pertsonala egingo dut. Oso pertsonala. Kalimotxoa gustatzen zait. Ardoa ere bai. Coca-Cola ez hainbeste. Literaturari buruz idatziko dudanez, ez dut irakurlea uxatu nahi. Horregatik hautatu dut horrelako metafora *txoz-natarra*.

Ongi dakigun bezala, ardo-upel batean Coca-Cola tanta bat botatzen badugu, bertan dagoena kalimotxoa bihurtzen da. Ordutik, ezin dugu ardoa deitu, upel osoko edukia aldatu delako, oso Coca-Cola gutxi badago ere.

Ongi dakigun bezala, edale bezainbeste kalimotxo mota daude: ardo asko edo gutxiagorekin, Coca-Colarekiko proportzioa oso erabaki pertsonala da, norberaren nahierara. Horretan, zientziak ez du ezer esaterik. Alderantziz, ardo tanta batekin ere kalimotxoa egin dezakegu. Txarra, baina kalimotxoa azken finean, eta ez Coca-Cola.

Metafora agortuta, mamira goaz. Literaturara. Askok gustatzen zait irakurtzea (idaztea baino askoz gehiago, eta hobeto egiten dut, zalantzarik gabe). Fikzioa (eleberriak, ipuinak...) eta ez-fikzioa (saiakerak, biografiak...) oso gustura irakurtzen ditut, eta inoiz ez dut ulertu bien arteko mugak lausotzeko edo bortxatzeko beharra.



Ivan Giménez

KAZETARIA

@IvnGimnez

Fikzioa eta ez-fikzioa oso gustura irakurtzen ditut, eta inoiz ez dut ulertu bien arteko mugak lausotzeko edo bortxatzeko beharra

Uler dezaket idazle batzuek publizitate, marketin eta abarreko tresnak erabiltzea, betiere euren burua nonbait kokatzeko ahaleaginean (abangoardian, mutil gaiztoen kuadrillan, generoen arteko purgatorioan, arauak apurtzeko irudi iraultzaile batean...).

Tira, guztiontzako etiketak daude: auto-fikzioa, hibridazioa, benetako ger-

takarietan oinarritua, biografia nobelatu eta abar luze eta aspergarri bat.

Hala ere, ardo-upel batean Coca-Cola tanta bat botatzen baduzu, kalimotxo-upela izanen duzu, eta ez ardoa. Biografia bat nobelatzen baduzu, eleberrri bat (eta ez oso ona, ziurrenik) izanen duzu, baina ez biografia. Pertsona baten historian egiaztatu gabeko datu bakar bat sartzen baduzu, historia osoa fikziozko historia bihurtzen da, eta era horretan irakurri behar da. Horixe da idazle eta irakurleen arteko idatzirik gabeko ituna. Eta zer esan saiakera historiko batean pertsonaia asmatuak txertatzen badira, ala pertsonaia historikoak eleberrietan sartzen direnean... Léon Tolstairen *Gerra eta Bakea* liburuan Napoleon bera agertzen bada ere, kontakizun historikoa denik ez duela inork defendatuko...

Ipuina ala eleberriak dira, erabateko fikzioa. Fikzio oso ona batzuetan (*Gerra eta Bakea* kasu), baina ezer gehiagorik ez. Fikzioak ez dituelako gertakari edo pertsonaia historikoak behar, baina sar daitezke. Alderantziz, ez: ez-fikzioak ez du guk asmatutako ezer onartzen, ardoa kalimotxoa bihurtzen delako. Kalimotxoa oso ona izan daiteke, baina ardoa eskatzen dugunean, ardoa nahi dugu. ■

LITERATURA-LOTURAK

Emanaldi literarioa

PARTEHARTZAILEAK:

Ane Labaka - Antonio Casado da Rocha - Gari Berasaluze -
Gonzalo Etxague - Harkaitz Cano - Leire Palacios -
Mikel Martinez - Patxo Telleria - Uxue Alberdi

Urriaren 9an, 19etan.
Koldo Mitxelena Kuiturgunea,
DONOSTIA



BOOKTEGI

Guztion liburuek, guztiontzat

www.booktegi.eus

Albora karga



Koldo Aldalur
KAZETARIA

Euskal komunikabideotan aritzen garenontzat emakumezko euskaldunen kirolen jarraipena egiteak saihestu ezinezko helburua behar luke. “Zer gutxiago komunikabide publiko batean” ari zarete pentsatzen. Arrazoi osoa duzue.

Orokorrean komunikabide gehienak gaztelaniaren alderako apustu estrategikoa-edo egiten ari diren garai honetan, euskara hutsean aritzen garenok nahikoa arazo badugu gaurkotasuna duintasun apur batez kontatzen. Duina eta estrategikoa, sarri uztarri berean jartzerik ez dagoen kontzeptu etereo pareta.

Albora karga hartu du egoerak, sagar ia denak otarra berean eta astoa alde batera, eskuin alde-
ra gehienetan, okertuta. Gaztelania nagusitzen ari da egunetik egunera hizkuntza eta edukiak aukeratzerakoan, eta, audientzien aitzakian, komunikabide ia denek erabakiak hartu dituzte ez itotzeko. Euskara estrategikoa ez izan, itxuraz.

Erabaki batzuek ez dute bozketarik onartzen eta nik, nire motzean, uste nuen euskararena horietarikoa zela. Gizagaixoa ni. Telebistan, behintzat, baldintza asko bete behar izaten dira saio txukun xamarra atera dadin: elkarrizketatua euskalduna izatea, jardueraren baten bereizia, gureratortzeko beta duena eta dakiena, edo bitakoa adierazteko gai dena behintzat. Baldintza gehitxo akaso.

Aurtengo Donostiako Estropaden bigarren igandean, emakumeak erlojuz kontra bota zituzten uretara itsasoaren baldintza bortitzek

“behartuta”. Gizonezkoak, berriz, tradizio sakratuari eutsiz, launaka bi txandatan.

Eztabaida luzea izan genuen horren harira estropada amaitutakoan, behin alde zaharreko kale laiotz koloretsuetan babestu ginenean: ea arriskua denentzat berdina izan al zen, ea olatuaren kolpeari eusteko alde handia dagoen ontzi barruan gizonezkoak izan edo emakumezkoak, ea emakumeen traineru guztiek zuten esperientzia nahikoa horrelako itsasoan aritzeko, ea lepagaineko errotan emakumeak era paternalistatan babesteko joera iltze-katurik duten arraun munduan agintzen dutenek, ea zergatik den hain txikia emakumeen presentzia erabaki horiek hartzen diren toki eta uneetan.

Gustura ezagutuko genituen arraunlarien iritziak behin urak baretu zirenean. Baldintza haie-
tan ateratzeara beraiekin adostutako erabakia izan zen? Ados zeuden erlojuz kontra ateratzeko erabakiarekin edo ateratzekotan, ohiko eran, launaka, ateratzearen aldekoak ziren? Jakiteko gogoz geratu ginen.

Komunikabide denok, informazioaren astoari gaztelaniaren aldeko albora karga jarri diotene-
k eta gainontzeko apurrok urte guztia dugu aurretik emakumea eta kirola protagonista izan daitezen gure eguneroko jardunean.

Hori bai, protagonistek beraiek ere konturatu behar dute batzuek besteek baino zailagoa dugu-
la lana. Emakumea, kirolaria eta euskalduna. Askotxo eskatzea ote da, ba? ■

Pozoiaren sosa



Itxaro Borda
IDAZLEA

Frantziako Gobernua adinez gaztea da eta gaztetasun horren izenean pentsatzen ahalko liteke jendarteari buruz bederen ideia berriak ekartzeko gai izango zela. Baina lau hilabete pasatu dira eta ez dute deus frogatu oraino. Alderantziz: egiten, erabakitzen eta lege bihurtzen duten guztia errotik lobby neoliberalenen menpe dago.

Boterea, lapurreta moduan hartu eta berehala nahastaile endokrinoen auzian Europan indarrean dauden aurkako neurrien maila apalenari amen erratea deliberatu zuten. Lan kodearen suntsitzea ez dut aipatzen, balitekeelarik hor ere zer idatzi. Duela gutxi nekazaritza ministroak bio-ekoizleei ematen zitzaizkien diru-lagun-

tzak kenduko edo murriztuko zituela iragarri zuen: merkatuak berak finantza dezala nekazaritza mota hori. Ez diote horrelakorik eskatzen laborantza intentsibo, kutsakor eta subentziaz okituari: badakite nor duten biluzten.

Hemen argi geratzen da FNSEA sindikatuaren, lur lan eredu konbentzionalaren eta agian industria agro-alimentarioaren galde bekaitzei makurtu zaiola frantses gobernua, hauei dirua luzatzea debalde xahutzea delarik ene ustez, energia irensleegia den modeloak ez duelako etorkizun izpirik.

Mundu errealetik kanpo bizi direla dirudi. Birla endogamiko batean. Gobernarietz ari naiz. ■

Esker txarreko nafarrok

railean izan da Nafarroako Musika Garaikidearen Festibalaren hirugarren edizioa. Gogoan dut, lehena aurkeztearen harira edo, bestela, horrela gogoratzen dut nik, Mikel Chamizo konpositore eta musika kritikariak txio bat atera zuela honakoa salatuz (2015eko abuztuko 5ean): “X-ren Euskal Elkartea: nafar asko egoten dira beti. X-ren Nafar Elkartea: nafarrak soilik”. Ikusi dut, hori gogoan ez nuen arren, erantzun niola: “Irtenbidea Euskotarren Nafar Elkartea sortzea izan daiteke”. Halere, Chami-zoren kexua ahan-tzi ez izanak salatzen du ukitu ninduela eta orduz geroztik pentsarazi didala. Arrazoi soziopolitikoak argudia daitezke, esan daiteke nafar elkarte edo erakundeek azpimultzatza izatera salatzen dutela beren burua, subordinazio nolabaitekoa; Nafarroan euskalduntasunaren urria eta jazarria ere aipa daiteke kanpotiko (edo, bakoitzak pertenezkoa nola bizi duen, ez hain kanpotiko) babesa beharrezkoa izateko. Horiek guztiak ez dute kentzen Mikel Chamizok salatutako desorekaren bidegabekia eta kasu anitzetan inter-duna ere.

Eroso bizi izan dugu nafar askok oihartzuna non emanen ziguten edukita, geure sare propioak hedatzeaz eta elikatzeaz ezaxolatuta; eta izan ditugunetan (eta azken bi urte hauetan aldeko haizeak jo digu) gogoeta egin behar dugu aski elkarrekikotasunez jokatzeko ari garen.


Eroso bizi izan dugu euskaraz aritzen garen nafar idazleak, geure erakunde publikoek eta gure enpresa ahulek sariak, bekak, bidaia-poltsak eta abar ordaindu ez arren, behar edo nahi izanez gero nora jo izan dugulako, EAEko instituzio literarioek hartu gaituztelako, eremu-aldiak iraun duen bitartean. Nafarroak izan duen utziketarik besteen esku utzi du herrialdeko letren kalitatea epaitzeko ardura. Nafar



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

idazleen aitortza, esaterako, Euskadi sariak bezalakoetatik iritsi da. Iaz, konparazioa, Iruñeko poeta batek irabazi zuen, eleberri batekin, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ematen duen Euskadi Saria, euskarazko modalitatean, eskuratu zuela nabarmentzekoa da. Ez zen hori izan 2016ko Euskadi saria jasotako nafar bakarra. Iruñean egoitza duen Igela argitaletxean Xabier Olarra gipuzkoar nafartuak itzulitako James Joyceren *Ulises* obrak sari horren itzulpengintza modalitatea eskuratu zuen. Gaztelaniazko saiakera atalean Fernando Mikelarena beratarra saria eskuratu zuen.

Argi ematen du nafar literaturaren legitimazio eta prestigiotze lana Nafarroatik kanpoko erakundeek eskutik heldu dela. Gobernu berriak (Javier Esparzak duela gutxi agindu bezala, 2019an, berak presidentetzara iritsita-koan, euskararen aldeko aurrerapauso guztiak zakarrontzira bota baino lehen) esku hartu nahiko balu, demagun, sariak, bekak edo (euskal kultura esportatzeko) bidaia-poltsak deituta, lan hori guztia beste batek egin dezan jarrera erosotik aterata, mekanismoren bat asmatu beharko genuke urteetako abegikortasuna eskertzeko. Ez litzateke ideia txarra izanzen euskal kulturarekin zerikusia duenaren halako konfederazio bat, erakunde komunaren bat, finantziario komunarekin hastea. Ez bada hortik jotzen, elkarteak-eta bikoiztuta amaitzen bagara, batean zein bestean arrantza egiteko aukerarekin, aukera hori ez dezagula bakarrik nafarrok izan. Gogoan har dezagun nola (denok kasuren bat ikusi dugun moduan), are erdarazko nafar sortzaile navarristek ere, antologia/katalogo/erakusketa batean edo, dirua/azpiegitura EAEk jarri izan duenean, ameto ematen dion eta ez duen (egoera kontrakoa balitz ez bezala) txintik ateratzen. ■

PRENTSA ASKATASUNAREN
ETA ASKATASUN GUZTIEN ALDE

EZ DIRA PASAKO

KATALUNIAK HERRIAREKIN
ELKARTASUNA

 ARGIA



URRIKO IRAULTZA KATALUNIAN

Irailaren 20ko Estatuaren atzaparkada, urriaren 1eko erreferenduma, urriaren 3ko greba orokorra eta independentzia aldarrikapena, horra Kataluniako etorkizun hurbila jorratzeko udazkenaren hasierak utziko dizkigun gertaera historiko klabeak. Eta azken bi asteetan Bartzelonan gertatu den guztiarekin, gaitza da independentzia ez den beste edozein biderik irudikatzea.



Xabier Letona
@xletona



Bide argia egin du katalan independentismoak atzoko bidegurutzera iristeko eta ibilian, Espainiako Estatuaren itxikeriaren aurrean, independentziaren aldarrikapena edota erreferendumaren arteko hautua egin behar izan du 2015eko udal hauteskunde autonomikoetatik hona. Eskuin-ekzter biltzen duen mugimendu independentista zabalaren baitan tentsio handiak bizi ondoren, erreferendumaren hautua egin zuten. Bai Kataluniako herriak bai nazioarteak erreferenduma lehenestea hobeto ulertuko zutela pentsatu zuten hautu honen aldekoek; eta batez ere, zilegitasun handiagoz jantziko zutela ondoren hartu beharreko erabakia. Bete-beteen asmatu zuten. Ondorio nagusia argia da: igandeko erreferendumak independentziaren atarian jarri du Katalunia.

Herri bat kalean

Bartzelona hautatu genuen erreferenduma jarraitzeko, epizentroa, baina bertan kokatzea ez zen batere samurra izan. Zer jarraitu? Non kokatu? Zeri eman garrantzia? Guk Sants eta Gràcia auzoak hautatu genituen erreferendumaren iraultza jarraitzeko, oso biziak dira eta independentismoa indartsua da haietan. Goizeko 5:00etatik eguerdira arte auzo horietan izan ginen eta arratsaldean Bartzelonako erdigunean eta, bereziki, Auzo Gotikoko bozka-lekuan. Baina kosta zitzaigun bilatzea bozka-lekurik. Udaltzain bati galdetu genion eta goizean zehar gehienak itxi zituztela erantzun zigun, berak ere oraindik ezin izan zuela bozkatu eta 18:00etan lana amaitzean joango zela eskolaren batera.

Herri bat izango zen kalean eta beste bat etxeetan, jakina, eta guk kalean zegoen herri hori ikusi genuen, historia lehen lerrotik egiten duena. Goizeko 5:00etan eskolako atarira iritsi eta irudia itzela zen Santseko Hizkuntza Eskolan: familiak kalean, gazteak, adinekoak... denetik. Denak hautetsontziak defenditzeko prest, eta ez bakarrik zentzu metaforikoan. Mossoak hurbiltzen zirenean edo bestelako zantzuak agertzean, eskolako atean biltzen zen harresi humanoa. "Votarem", "votarem", hori zen etengabeko oihu nagusia, "bozkaturiko dugu", eta beste hainbatetan "Kaleak beti izango dira gureak".

Tentsio handia, euri jasa, txaloak bozkatzera zihoazen zaharrenei, besarka-

dak botoa ematek ateratzean, eraso zibernetikoa orain eta mahaien erdia geldu, gero berriz guztiak martxan, jende ilara itzelak... Edozein elkartasun keinu txalo zaparradaz hartzen zen. Sants eta Gràciako eskoletan behin eta berriro ikusten ziren irudiak dira. Guzti Mossoen etengabeko zaintzapean: hurbiltzen ziren atera jakinarazpenak egiteko, baina bueltan bidaltzen zituzten, batzuetan oihuz eta besteetan "hau da gure polizia" esanez. "Trapero heroi bat da guretzat", esan zidan goizean taxistak eskolara bidean.

Beste eskola askotan gertatzen ari ziren erasoen berri barreiatzen ari zen herritarren artean eta ezin ulertua zen erreakzio nagusia: "Botoa eman nahi izateagatik hau jasan behar?". Gizarte osora zabaltzen den sentimendua da, maila batean edo bestean. Ostera ere, oso argi geratu zen Madrilen dagoela katalan independentisten fabrikarik emankorrena.

Funtsean, igandean kaleak halako titulua utzi zuen: herri bat bere erreferendumaren, askatasunaren eta demokraziaren defentsan. Herriarenak topiko usaina izan dezake askorentzat, baina igandean Bartzelonako kaleetan ibili zenak argi ikus zezakeen hori. Hala ere, kalearekin bakarrik ez itsutzeko besterik ez bada, komeni da azpimarratzea erreferendumaren defentsa argia egin dutela Kataluniako Parlamentuko ordezkarien %80k.

Atzerrira begira ere Espainiaren irudia asko aldatu da irailaren 20tik aurrera. Nazioarteko, eta bereziki Europako, hedabide eta gobernu garrantzitsuenei gaitza egin zaie irenstea Madrilek arazoa bideratzeko erabili duen indar eta itxikeria maila. Igandeko eta asteleheneko nazioarteko prentsan argi islatzen da hori.

Independentzia aldarrikapena

Igandetik aurrera munduaren aurrean zerbait oso argi geratu bada zera da: kontakizuna ez da, orain arte bezala, aktore nagusi bat dagoela, Espainia, eta honek baduela barne arazo bat, Katalunia. Dagoeneko bi aktore dira, Espainia eta Katalunia, eta bien arteko arazoa bideratzeko negoziazioa ezinbestekoa da. Hori da katalan independentismoak irabazi duen kontakizuna.

Erreferendum bateko datuak beti dira oso garrantzitsuak eta ohikoan eraba-



kigarriak, baina kasu honetan ez hainbeste, batez ere ez delako erreferendum normal bat izan. Madrileko Gobernuaren erasopean egindako erreferendum bat izateko eta egin den klandestinitate baldintzetan egiteko, ia 2,3 milioi pertsonak bozkatzeko sekulako garaipena da, batez ere horietatik %90 independentziaren aldekoa izan denean. Itxitako eskolen ondorioz, beste 700.000 pertsona bozkatu gabe geratu dela kalkulatu da.

Baina ez da erreferendumaren emaitza bakarrik izan, garaipena beste esparru askotatik ere etorri da, batez ere, kalearen indarra eta esparru instituzionala uztartzetik. Gizarteak bultzatu du esparru instituzionala independentziarantz, honek egoki erantzun du eta kaleak instituzioek hartutako erabakien zilegitasuna babestu eta defenditu du. Horra indar metaketaren zikloa. Bide horren orain arteko azken geltokian, Kataluniako Legebiltzarrak independentzia aldarrikatuko du astearte goizean.



Poza Bartzelonan,
erreferendumaren emaitzak jakitean

ARGAZKIA: JAVI JULIO

Eta berriz buelta ziklora: greba orokor-
rak defendituko du independentziaren
aldarrikapena.

Bi irudi: errepresioa eta herritarren indarra

Madrilek erabilitako indarkeria izan
zen urriaren 1ak hedabideetan utzita-
ko irudi nagusia. Basatia izan zen, gure
inguruko beste polizia askoren jokaerak
askotan diren modukoak, eta katalanek
munduaren begiak gainean izatearen
zortea ere izan dute. Atzerrian egin du-
ten lanketa handiaren emaitza ere bada.

Poliziaren indarkeria hori irudi bat
zen, zalantzarik gabe, baina ez nagu-
sia. 2.300 bozka-lekueetatik 100 bat zi-
ren indarkeria hori jasaten ari zirenak,
beste 200 indarkeria barik itxi zituzten
Mossoek. Itzela izan zen, baina hori egu-
naren irudi nagusi bihurtzea ez guztiz
egiazkoa. Errealitate sendoagoa zen bi
milioitik gora pertsona beren bozka le-
kuak defenditzen eta botoa ematen ari
zirela, tentsio handiz, bai, baina sekula-

ko sendotasunez eta alaitasunez ere bai.

Bartzelonako gauza deigarrieneta-
koa izan da erreferendumaren presta-
ketaren maila handia, esparru guztietan
gainera. Eta paradoxarik handiena Ge-
neralitateak prestatu behar izan duela
erreferendum klandestino bat, hori bai,
herritarren laguntza ezinbestekoarekin.
Ostiralean eta larunbatean klandestini-
tatea usaindu egiten zen Bartzelonan,
erreferendumaren ingurumarira hurbil-
duz gero: “Zu nor zara”, “nor bait etorri-
ko da”, “ez dakit”, “dagokionean jakingo
dugu”... “Nor da arduradun?”, galdetzen
du mossoak, “guztiak gara” erantzuten
dute herritarrek aho-batez eskola ata-
rian.

Espainia leherketaren beldur

Eta Espainiako Gobernuak zer? Izan-
go da erasotik politikara igarotzeko
gai? Hurrengo kapitulu batean jorratu
beharko da, baina antzera jarraituko
duela pentsatzeko arrazoi asko daude;
hori bai, orain katalanei goxokia lehe-

nago eman ez izanaren damuaz, eta
diskurtsoa modulatu beharrean. Orain
independentzia eta erreferendum ados-
tuaren artean mugitu beharko da. Hori
guztia Mariano Rajoyri 78ko Espainia
muturren aurrean lehertzen ez bazaio.

Josep Fontana historialari katalan
handia ere komeni da gogoan izatea.
Hala dio egunotan Kataluniaren inde-
pendentziaz galdetzen diotenean: “Bai,
Generalitateak esango dio Madrili, me-
sedez atera itzazu zure armada, poli-
zia eta Guardia Zibila Kataluniatik, eta
haiek erantzungo dute, itxaron pixka
bat, oraintxe bertan”. Ez dira hitz zeha-
tzak, baina ideia hori da. Bistan da, hori
kontuan ez izatea inozoa litzateke. Ka-
talan independentistek badakite hori,
baina Espainiari begiratzean garrantzi
handiagoa ematen diete ostiral gauean
Bartzelonako kanpaina amaierako eki-
taldian Jordi Cuixart Omniumeko lehen-
dakariak 80.000 lagunei luzatutako ber-
bei: “Nik beldurrik ez badut, zuk ez duzu
indarrik”.■

Adin guztietakoek kalean irabazitako eskubidea



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Bozkatzea eskubide omen da. Katalan herritarrek eskubideak praktikatu, defendatu eta irabazi egiten direla erakutsi digute beste behin.

Goizeko 5:00etarako zen deialdia. Ahalik eta jende gehienak bezperako gaua eskolen barruan eman zuen. Gracia auzoko Vedruna eskolara joan gara goizaldean.

Eskola barruan, patioan, jendea antolatuta. Atea zabalik baina koadrila oso batek zaindua. Ate aurrean hiru kanpin denda eta 20 bat lagun lo-zakuen barruan, esnatzeko ahaleginetan. 50 bat lagun gehiago zutik, borobiletan baina nukleo bat osatuz hizketan, etengabe iristen den jendearekin pilatzen zaiela. Kalearen bi ertzetan, ormaren kontra, aulkietan eserita zaharrak, gizon eta emakumeak, ordu luzez zutik egon ezin dutenak. Pare bat ume, 10 bat urtekoak. Kale hori ahal den moduan estaltzen duten hiru karpa.

6:00etan Mossoak etorriko direla azaldu du oharrak ematen dituen kide batek, eta naturalki edo, denok pilatu gara atearen aurrean. Zaharrenak aulkian eserita eta gainerakoak zutik, ez dugu pausorik emateko lekurik. Metro erdiko espazioaren barruan, eta leku batetik bestera mugitzeko errespetuz eta lasaitasunez bidea kostata egiteko aukerarekin, egon dira guztiak 5:30etatik 9:30 aldera arte, bozkatzen hasteko aukera izan duten arte. Kieto. Erraz esaten da. Bezperatik apenas lo eginda, adin eta gorpuzkera guztietako jendea, lekuan bertan kieto. Euri zaparrada ederrak bota ditu tarte horretan, eta karpak karpa eta aterkiak aterki, bustialdi ederra hartu dute hainbatek.

Helburu argia du ekintza fisiko bakesku baina gogor horrek: “*Votarem!*”. Bozkatuko dugu, denok bozkatuko dugu. Giroa lasaia da, eta bozketa ahalik

normalena izatea detaile guztiekin defendatzen dute: esplizituki komunikatu dute baietzaren aldeko mezuekin ez pankarta ez kamiseta ez bestelakorik ez eramateko, eremu neutrala behar duela bakoitzak nahi duena bozkatzeko. Ez musikarik eta ez zalapartarik, jendeak tonu bareko elkarrizketak ditu batekin eta bestearekin. Elkarrekin oihukatutako lemek bideratzen dute erantzun kolektiboa momentu erabakiorretan: “*Votarem!*”, “*Les carres seran sempre nostres*”... eta umorea, auzotar batek esan digun moduan “zentsugabekeria hau guztia eraman ahal izateko modu bakarra”.

Bozkatzen hasi diren unea

9:00etan ziren bozkaketa irekitzekoak, baina arazo informatikoak medio (Espainiako Gobernuak eskolan internet moztu duela zabaldu da) 9:30 aldera hasi dira bozkatzen. Are beranduago hasi dira Gracia auzoko beste eskola batzuetan, eta “bozkatzen hasiko gara” esaldia eta jendearen txalo-zaparradaren ostean etorri dira zehaztapenak: mantso joango da, ordu asko daramatzagu hemen eta denok gaude nekatuta, baina pazientzia, egun osoa pasako dugu eta hemen elkarren ondoan pega-pega eginda. Denek izango dugu bozkatzeko aukera. “*Votarem*” berriz ere, baina denek bozkatu ahal izatea.

Herritarrek oso “mobilizatuta” daude ibili garen lekuetan, denak ari dira etengabe mugikorretatik jarraitzen zer ari den gertatzen beste lekuetan eta berehala zabalitzen da albistea eskola atarietako jende saldoen artean: “era-soak izan omen dira Sagrada Familian”; “Puigdemontek 8:00etan esan du edozein katalanek edozein eskoletan bozkatu ahal duela, eta bat ixten badute jendeak besteetara joateko”...

Vedrunan bozketa zabaltearekin batera zehaztu dute “hau auzoko ekintza bat da, beraz, auzotarrek bakarrik bozkatuko dute. Atera NANA eta eskuetan

izan”. Harrigarri egin zaigu, ondokoak lasai esan digun arte “kalez jantzitako bi polizia omen dabiltza hemen, eta horregatik da”.

Auzoko zaharrenek eman dute bozka lehenik. Ongi merezitako ohorea, eta aldi berean jasangarriena ere badena, fisikoki kalean ordu gutxien eutsi dezakeena. Zaharrenek bozkatutakoan kaleratu dira malkoak, emozio biziak, adierazpenak, gerrako eta frankismoko oroitzapenak...

Illarak sortu dira baina ez ilara hutsak: eskola atari osoa jendez bete bermatu behar da egun osoan. Beraz, ilara hutsune lerro mehe batek bereizten du, ahalik denbora gehien leku horretan ematen ari diren pertsonengandik. Jende gazteagoaren txanda iritsi denean, bozkatuta ateratzen direlarik, mezu hau zabalitzen dute eskolaren defentsan ari diren herritarrek, tonu lasaian, errespetuz, eta konplizitatea bilatuz: ez zaitezte joan, lortu behar dugu denek bozkatu ahal izatea, gelditu bertan, inportantea da, 20:00ak arte eutsi behar diogu...

Beste eskola batzuek ikustera joatea erabaki dugu. Vedrunakoa uztera goazela konturatu gara goizeko 5:00etan ezagutu dugun jende multzoa nola biderkatu den; harrituta gaude. Ederki kosta zaigu eskola ataritik ateratzea, eta jende ilarak eta kontzentrazioak, ez du asko falta kale paraleloan dagoen Reina Violan eskolako jende saldoarekin bat egiteko.

20:00etarako itzuli gara Graciara, eta Jujol eskola aurrean egon ostean, La Fontana eskola aurreko jendetzak eta #mambo-ak hartu gaitu. Eskola guztietan lortu dute egun osoan zehar jendetza zaintzen egotea, eta 20:00etarako, momentu gorenerako, pilaketak izugarriak dira. La Fontanan gazte giroa da nagusi, eta 20:30 aldera itzuli gara Vedrunara. Jende helduagoa, jende asko asko dagoeneko helburua “*Votarem!*” lortu ostean. ■



Jendetza Bartzelonako kaleetan emaitzen zain

ARGAZKIA: JAVI JULIO

Kataluniaren aurkako indarkeria



Arturo Puente

@apuente

Indarkeria baliatzeko gai denak, ikusi ahal izan dugun moduan, bere burua baliogabetu egiten du solaskide bezala, indarkeria horri uko egin bitartean bederen”.

Urteak beharko dira igande honetan gertatu dena guztiz ulertzeko, baina hobe dugu gaur bertatik ulertzen has-tea. Estatu batek indar poliziala bidali du bere gutxiengo nazionalak baten aurka, soilik bere autodeterminazioa bozkatu nahi zuelako. Eta egin du era-bat kontziente izanik egiten zuenaz, gehiengo parlamentario eztaba daezin eta transbertsalak babestuta, ondo-rioak bere eginez eta emaitzengatik harro.

Duela 40 urte frankismoa erori ze-netik, Espainia, lurralde-osotasunari eusteko, ez da gai izan indarkeriaz besteko arrazoi bat aurkitzeko. Akordio konstituzionala, izan Euskadin edota Katalunian, nagusitasun militar, polizial eta juridikoak laburbiltzen du beti. Ho-rrri aurre egiteko, gutxiengo nazionalak ez dute beste biderik desberdinen arte-ko negoziatioari heltzea baino, alegia, inposizioa onartuta, edo hausturaren bitartez.■

ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Kataluniako *demos* soberanoa jaioa da



Asier Blas
@axiBM

Kataluniako *procés*-a demos soberano baten eraikuntza izan da. Manifestazioz manifestazio, botoz boto taxutu dute herri burujabe baten etorkizuna. Horrelako bideek baina, une fundatzaile sinboliko bat behar dute herria kohesionatu eta trinkotzeko. Hori izan da urriaren 1a. Historiarako geratuko da egun honetan Kataluniako subjektu soberanoaren aurkezpena nazioartean.

Katalan herriak, Generalitat-arekin koordinatuta, sekulako antolaketa eta heldutasun maila erakutsi du autodeterminazio erreferendum bat eratzeko orduan. Espainiako Estatuaren erantzun autoritario eta biolentoaren aurrean, herritarrek gizalegezko erantzun demokratiko bat eman eta hauteskontziak defendatu dituzte. Salbuespen egoeran buruturiko erreferendum batentzat partaidetza oso altua izan da. Horregatik, igandeko borroka katalan demokratek irabazi dute, errepresioaren irudiak eta botoak lortu dituzte nazioarteko esparru publikoan hautsak harrotuz.

Alabaina, Kataluniak bizi duen eskubide demokratikoen urraketa nazioartekotzeko borroka ez da amaitu. Aldebakarreko independentzia aldarrikapena eta greba orokorra tresna garrantzitsuak izan daitezke Espainiako



Bozka ematera hurbildutako edadetuak txaloka

ARGAZKIA: JAVI JULIO

Gobernua presionatzeko. Ez da izango sezesio prozesuaren amaiera, Kataluniak oraindik ez du indar nahikorik indarkeriaren monopolioa eskuratu eta nazioarteko aitortza erdiesteko gradu batean edo bestean. Bi baldintza horiek izan gabe ez da bideragarria sezesioaren arrakasta. Katalunia herrialde aberats bat da eta herritarren gehiengoa ez dago prest goizetik gauera pobretzeko nazioartean oraindik babesten ez den aldebakarreko sezesio batean. Borroka autodeterminazio eskubidea egikaritzeko akordio bat lortzeko da.

Prozesuak ez du atzera-bueltarik. Katalan herria eta Espainiako Estatu-

ren arteko etena handitu eta sakondu egin da, beraz, ezinbestean konponbide bat topatuko bada berdintasunean oinarrituriko alde bikotasunetik egingo da, bi subjektu soberanoen arteko negoziaketa bidez, alde batetik Katalunia eta, beste aldetik, Espainia. Horretan katalan herriak beste lezio bat ematen ari da munduan: autodeterminazio eskubidea lortzeko estrategia baketsu bat jarri dute martxan eta arrakastatsua izaten ari da. Demos soberano berri bat jaio da munduan, orain demos horrek erakundetzeko duen borondatea erabakitzeko eta gauzatzeko eskubidea erregulatzeko unea iritsi da. ■





Espainiako Polizia Bartzelonako hainbat auzotan oldartu zen herritarren aurka

ARGAZKIA: JORDI BORRAS

U-1: Giltzarrapoa hausten



Alex Romaguera

@alexromaguera

Espainiar alderdi nagusiek “Konstituzioaren aurkako kolpe” bezala kalifikatu dute erreferenduma. Ziurrenik, haiek eta erreferenduma bultzatu duten Kataluniako eragile sozial eta politikoak bat datozen gauza bakarra da hori. Zentzu bikoitza duen irakurketa, zeinak nabarmendu egiten dituen deialdiak azaleratutako dimentsio historikoa eta urriaren 1ean gertatutakoak. 844 lagun zaurituak eta dozenaka eskola erabat zigilatuak. Ez da deus gehiago esan beharrik.

Ikusteke dago zein ibilbide izango duen baina, gutxienez, urriaren 1ak larru-gorritan utzi ditu sable frankisten zarataren pean eraikitako erregimenaren egitura-akatsak. Atzo, hautestontzietan sartutako boto-paper bakoitzak gobernantza sistemaren flotazio-lerroa

kolpatu zuen; sistema horrek, duela 40 urte, askatasun osoa eman zion elite batzuen pribilegioari, Estatua osatzen duten norbanako eta nazioen oinarritzko eskubideen kaltetan.

Milioika katalanek atzo erakutsi zuten duintasunaren eta Madrilek agindutako errepresio polizialaren arteko kontrasteak, konponbide zaileko arrakala islatzen du: batetik, baimenik eskatu gabe askatasuna lortu nahi duen gehiengo ahaldundua; bestetik, maldan behera doan erregimena, barru-barruraino usteldurik dagoena eta proiektu barneratzaile eta demokratikoa eskaintzeko gai ez dena.

Kataluniar auziak 78ko giltzarrapoa apurtu lezake. Hala irudikatu da, bere bultzada emantzipatzailea kontuan hartuz, zeinak gainerako herri eta herri-klaseak eramango lituzkeen “gauzen egoera” aldatuko duten ziklo konstituziogileak bultzatzea. Baina gaur egungo testuinguruak errealitate oso desberdina irudikatzen du.

Podemos, mareak eta M-15aren gainerako oinordekoak, lekukoa har lezaketzen horiek, ez daude PSOeri sorpas-soa ezkerretik egiteko moduan. Aitzitik: espazio horrek joera du hirugarren aktore bihurtzeko bi alderdiko sistemaren aurrean, zeinak, bere akordioekin, helburutzat soilik duen *status quo* mantentzea, koma bakarra aldatu gabe lurralde-batasunaren printzipioari eta Troikak markatutako doktrinei.

Horrela ba, guztiak adierazten du urriaren 1ak politikoki errubrikatzen duela Kataluniak 2010ean hasi zuen deskonexioa, Estatut-a lurperatu zuen epaiaren kausaz. Baina ez hori bakarrik: guztia birplanteatzeko Errepublikak independentea eraiki nahi duen herriaren borondatea indartzen du. Dinamika horrek, zeinak astearteko greba orokorrak segida emango dion, ilusioa pizten duen zirkulu demokratizatzaile batek indartzen du. Eta formula hori, bidaia-lagun berriak egin zain, irabazle da. ■

Tantirumairu ikastola

ESKOLA JASANGARRIA HELBURU

Nafarroa Oinezeko prestaketen azken txanpan buru-belarri harrapatu ditugu Lesakako Tantirumairu ikastola eta bertako zuzendari Maria Luisa Etxeberria. Ikastetxean jasangarritasunari lotuta abian dituzten proiektuez galdetu diogu.



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIAK: TANTIRUMAIRU

Ikastola txikia da Tantirumairu, Lesakako ehun gazte inguru hartzen ditu eta Lehen Hezkuntza ematen du. Ingurune naturalean kokatutako herria izanik, pentsa liteke bertako haurrek izanen dutela nahikoa sentsibilizazio eta ezagutza ingurumenaren zaintzaz. Ez da beti horrela gertatzen, ordea. “Herriko haurrak izateak ez du bermatzen inguruko landare eta zuhaitzak ezagutzea eta naturaren zaintzarekiko sentsibilizatuak egotea”, azaldu du Etxeberriak.

Hastapenetatik izan da ikastolaren ardatz pedagogikoetako bat ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta gai horren lan-keta. Jasangarritasunaren aldeko apustua ekintza puntualetan baino, eguneroko lanean oinarritu dute. “Gizarteko partaide-eragile izateko hezten ditugu haurrak hemen. Eragile izaera hori landu nahi dugu, eta horretarako ingurumenaren gaian ere errora, sakonera jo behar da, ezin da itxuran gelditu ekintza puntual ikusgarri bat antolatuz”, dio zuzendariak. Hala, hainbat ildo dituzte martxan Tantirumairun: naturaren ezagutza eta zaintzarekiko sentsibilizazioa, birziklapena, jangela, baratzea eta konposta.

Aurrena ingurua ezagutu eta maitatzen ikasi

Haurrek bertako landare eta zuhaitzak eta inguratzen dituzten naturako elementuak ezagutzea izango litzateke horiek errespetatzera iristeko lehen pausoa. Horretarako, Naturaren Astea antolatzen dute urtero: “Ikastolako kide guztiok aste osoa gai horri eskaintzen diogu, monografiko gisara. Mendira joaten gara, hostoak bildu, sailkatu, eta gero zaharrenek, gaia gehiago lantzen dutenez, txikiagoei ikasitakoa transmititzen diete”. Herrian dituzten ekosistema ezberdinak, mendikoak eta erreka bazterretakoak kasu, aztertu eta horiek bereizten ikasten dute haurrek. “Ingurumena zaintzeko beharrezkoa da lehenago hura ezagutzea, bizitzea. Gero etortzen da zaintza”, dio zuzendariak.

Birziklapenean ikasleak eragile aktibo

Mankomunitatean birziklapenarekin hasi zirenean gaia ikastolara eraman eta indar handia jarri zuten haurrekin lanketa berezia egiteko. Herriko birziklatze tasak baxuak ziren, eta etxeetako ohiturak haurren bidez aldatzen saiatu

zirela kontatu digu Etxeberriak: “Mankomunitateko hondakinen arduraduna etortzen zen, larrituta zegoen gaiarekin eta hori transmititu egiten zuen. Hondakinak ekarri eta ikasleekin batera dinamikak eginez nola birziklatu erakusten zigun”. Klasean landutako informazioa etxera bidaltzen zuten gero, eta hurrei etxeetako birziklapen ohituretan arreta jartzeko eskatzen zieten. “Badakigu askok *tabarra* ematen zutela etxeetan kontu honekin”, dio zuzendariak.

Pixkanaka, beren inguruan birziklapena bultzatzeko eragile ere bihurtu dira Tantirumairun. Horren adibide da bizpahiru urte atzera ikasleek eurek proposaturiko ekimena: patioko zaka-rrontziak ontzi bakarrekoak zirenez eta birziklatu ezin zenez, gazteek Udalari eskaera egin eta honek koloretako zaka-rrontziak jarri zizkien jolastokian.

Jangelako sukaldean ere eragin zuten aldaketarik ikasleek. “Birziklapenarekin hasi ginenean ikasleak ohartu ziren sukaldean ez zirela jogurt poteak birziklatzen. Sukaldeko laguntza eskaini eta aparteko poltsetan biltzen hasi ziren”, kontatu digu Etxeberriak. Zuzendariak





Hainbat ildo dituzte martxan Tantirumairun: naturaren ezagutza eta zaintzarekiko sentsibilizazioa, birziklapena, jangela, baratzea eta konposta.

argi du, baina, aurrerapauso garrantzi-tsuak emanda ere gaia etengabe landu beharra dutela, ikasturte berriarekin ikasle zaharrenak alde egiten baitute eta berriak sartu.

Jangelan elikadura jasangarria helburu

Tantirumairuko jasangarritasun proiektuen artean dago jangelako sukaldia eraldatzea eta elikadura jasangarriari begira aurrerapausoak ematea. Ikas-

leen otorduetarako janari guztia bertan prestatzen dute, eta pixkanaka bertako produktuak eta janari ekologikoa sartzeko xedez ari dira lanean. "Aurrerapauso garrantzitsua izan zen, adibidez, gosarian eta jangelako otorduetan haurrei ematen zaien fruta guztia ekologikoa izatea", dio zuzendariak. Jangelako elikaduraren gaia lantzeko talde propioa dago, eta gutxika menuan aldaketak egiten ari dira. "Inguruan hainbeste ekoizle ere ez dago eta bertako zenbait

produktu eskuratzea ez da erraza. Baina prozesu horretan gaude".

Baratzea eskolan, baratzea eskola

"Duela hiru urte inguru jarri genuen martxan ikastolako baratzea. Ortu txikia da, baina lurra lantzeko aukera ematen digu". Haurrak baratzearen mundura hurbiltzea du helburu proiektuak, lurra ikustea, ukitzea. Herrian familia askok baratzeak izanik ikasleei ezaguna egin arren, zuzenean bertan aritzea desberdina dela uste du zuzendariak. "Eurak aritzea aitzurra hartuta eta taldean lan eginez beste kontu bat da. Harra pizteko, lurrarekin harremana edukitzeko egokia da".

Baratze proiektuari lotuta, gainera, konposta ere egiten dute ikastolan. Birziklapena lantzen hasi zirenean ekin zioten konposta egiteari, Mankomunitateak konpost ontzia eman zienean. "Hamaiketako hondakinak, fruitu-azalak eta sukaldean sortzen den organikoa bildu eta ikasleek jolas-orduan eta bazkal ondoren konpost ontzira eramaten dute dena". Ikasle taldeek txandakatuz egiten dute lan hori, irakasle baten laguntzaz. Konposta nahasi, hosto lehorrak gehitu, eta heldua dagoenean baratzea ongarrizko erabiltzen dute.

Martxan jarritako ekimen hauen guztien balorazio positiboa egiten du Maria Luisa Etxeberriak, ikasleen jardunean eta eguneroko jarretan pixkanaka aldaketak ematen ari direla ikusten baitu. Bidean, oso garrantzitsua izan da irakasleen jarrera: "Lanketa hauek guztiak ezinezkoak lirateke irakasleak gaiarekin sentsibilizatuta eta inplikaturik egongo ez balira". Aurrera begira? "Gure helburuetako bat da baratzea handitzea eta hobeto antolatzea. Ea hortik sukaldara zerbait pasatzea lortzen dugun". ■

**Kalitatea da
gure produktuen
ezaugarri nagusia!**



**BISITA EZAZU
GURE DENDA**

Industrialdea B 7-8 partzela

**ABLITAS · Nafarroa
KOSTAPREZIOAN**



conservas artesanas
maría Jesús



www.conservasartesanas.com

Green Capitaletik, Squat Hiriburura

ZER GERTATZEN ARI DA GASTEIZEN?

Gasteizko okupazio mugimendua pil-pilean dago: Gaztetxea, Errekaleor Bizirik, Arkillos 10, SUMendi gazte espazioa, Gazte Emantzipazio Sareak (GES) berreskuratutako Ensanche 21 en etxebizitza hutsak... Protagonisten hitzak bildu ditugu mahaiaren inguruan. Arrazoi ezberdinak direla-eta, mintzakideek nahiago izan dute izen pertsonala gorde eta bakoitzaren proiektuetako kide gisa hitz egitea.



Mikel Buruaga
@MKulungele

Errekaleor auzo autogestionatuan maiatzaren 18an agindutako argi mozketaren inflexio-puntu erabakigarria izan da Gasteizen. Alde batetik, Errekaleor eztabaida politikoaren erdigunean jarri eta, bestalde, hiria ulertzeko modu ezberdinen arteko talka agerian geratu da berriro ere, Javier Marotok alkate izateari utzi zionetik bi urte baino gehiago pasa direnean.

“Okupazioaren boom-a? Bai zera!”

Izotza apurtzen lehena izan da Gaztetxeko kidea, gainontzeko mahai-kideak okupazio mugimenduaren eztanda buruz harrotasunez hitz egiten hasi direnean: “Gezurra da boom-a dagoela. Okupazioa betidanik izan da Gasteizen”.

Eztabaida piztu da, baina arrazoirik ez zaio falta. Izan ere, 2018ko apirilaren 28an, San Prudentzio egun batez,

30 urte beteko dira 300 lagun inguruk apezpikuaren jabegoko eraikin bat gaztetxe bihurtu zutenetik. Eta 1983ko abuztuaren 6an, hiriko jaiekin batera, uhinak okupatzeari ekin zion Hala Bedi irratia ere. Belaunaldi oso baten soinu-banda izan zen Euskal Rock Erradikalaren garaiak ziren. Kanean “herri bat, gaztetxe bat” oihukatzen zen, baita gauzatzen hasi ere.

Gasteizko historiaren hamaika istorioren lekuko izan dira Muinoko Etxea eta Arabako irratia librea. Besteak beste, 2007ra arte alkate izandako Alfonso Alonsok (PP) gaztetxea desalojatu nahi izan zueneko. Alde Zaharra eraldatzeko PPK aurkeztu zuen PERI proiektuaren kontra, herritarrek egindako mobilizazioak geldiarazi zuen eraisketa plana eta udal gobernua aldatu zen. Herri mugimenduaren oroimenean gordetako bi

data ezagutu behar dira egungo belaunaldia ulertzeko: 2005eko Gaztetxe Eguna eta 2008ko Piztu Gasteiz eguna. “Kritikotasun eta heldutasun eskola” izan da Gaztetxeko asanbladan duela bost urtetik hona parte hartzen duen kidearentzat: “Beti ibiltzen ginen Gaztetxean, atzean zegoen guztia ezagutu gabe. Ekintzara pasatzeko momentua zela ikusi nuen”.

Gaztetxea eta Errekaleor bereizteko –bakoitzaren aurrean udal gobernuak jarrera ezberdina du–, Gorka Urtaran alkateak egindako adierazpenak hizpide ekartzean, Errekaleor Bizirik-eko kideak argi dauka zergatia: “Gaztetxeak zutik dirau auzokideek eta herritarrek defendatu zutelako. 10 urte pasa dira eta, gaur egun, pentsaezina da Gaztetxe-rik gabeko Gasteiz”.

Solaskide guztiak ados dira. “Ez da okupazioaren boom-a, baizik eta boom





mediatikoa”, adierazi du GESeko kide batek, hedabide nagusien papera kritikatzuz. “Hala ere, argi dago hiri honetan zerbait berezia gertatzen ari dela”, prozesu historiko baten kulminazioaz min-tzo da.

Azken hamarkadan, ugariak eta askotarikoak izan dira okupazio esperientziak. Guztiak aipatzeak luze joko luke. Gorabehera asko izan dituzte, baina gaur arte iraun duen esperientzietako bat da 2008an auzolanari esker berreskuraturako eta autogestioan oinarritutako Auzolana Pilotalekua. Espazio horretan udal gobernuak kafe antzoki bat eraikitzeak asmoak alarma gorria piztu zuen, baina tirabirak gaindituta, gaur egun zutik eta martxan jarraitzen du.

Beste batzuk iragankorragoak izan dira. Gentrifikazio proiektuek eta de-

saloekek bertan behera utzarazitakoak dira gehienak. Adibidez, ez dira gutxi izan etxebizitza funtzioak betetzeko Alde Zaharrean okupatu diren eraikinak: Aldabe, OkuPinto, Kutxitrill, Kutxi 103 –2006tik 2011ra–, San Francisco 3 –2011tik 2014ra–, eta abar. Bestalde, gaztetxeak auzoetan sortzeko ahalleginek gutxi iraun dute: Judimendin 2009an, Zaramagan eta Txagorritxun 2011n, eta beste.

Titularren atzean, hamaika amets

Proiektu asko martxan daude gaur egun ere, eta “okupazioaren boom-a” lau haizetara zabaltzen duten titularren atzean pertsona eta kolektibo asko eta askotarikoak daudela agerian geratzen ari da. Bizi-bizirik daude, eta euren historia, esperientzia eta bizi-proiektuak sozializatzen ari dira.

Ekainaren 3an, Euskal Herriko herri mugimendu askok babesa adierazi zion Errekaleorri, Udalak auzoari argindarra moztu ondoren. Auzokide talde batek teilatutik ongi etorria eman zion Gasteizko erdigunetik heldu zen manifestazioari.

ARGAZKIA: IÑIGO PÉREZ PICAZO

Arkillos 10

2010ean, udal-jabego publikoko eraikin hau okupatu zuen gazte talde batek Alde Zaharreko Arkupetan. Udalak zazpi urte lehenago, 2003an, erosi zuen eraikina, baina ez erabilpenik dio eman. Egun, gazteek, 12 pertsonarentzako etxebizitza, bizikleta tailerra eta kultur-espazioa prestatu dituzte eraikinean.

Neurrigabeko alokairurik ordaindu gabe, komunitatean, duintasunez, bizitzeko aukera dela azpimarratu du Arkillos 10 proiektuko kideak. “Nire burua eta jende eta esperientzia berriak eza-



gutzeko aukera izan da: beste herrialde batzuetako pertsonak, familia eredu eta belaunaldi ezberdinak...”

Errekaleor Bizirik

2013ko irailaren 3an, ia hutsik zegoen Errekaleor auzoan eraikin bat okupatu zuen ikasle talde batek. Lau urte geroago, argindarrak gabe eta Udalak zein Ensanche 21 hirigintza elkarte publikoak bultzatutako eraisteko mehatxupean, “Europako irla energetikorik handiena” bihurtzeko erronka hartu dute bere gain han bizi diren 150 lagunek. Horrez gain, baratzea, okindegia, inprimategia, gaztetxeam zinema eta beste hamaika proiektu sortu dituzte auzoan.

“Etxebizitza eskubidea bermatzeaz gain, bestelako bizi eredu oso bat praktikara eramateko aukera” izan da Errekaleor duela bi urte auzora iritsi zen kidearentzat. “Harreman kolektiboak, bizitzaren intentsitatea eta proiektuaren transzedentzia” azpimarratu ditu.

SUmendi Gazte Espazioa

Judimendi auzoko gazte asanbladak, 2016ko ekainaren 23an, Benito Ginea kaleko lokal huts bat “berreskuratu” zuen eta iazko urriaren 28an ireki zituen ateak. Ia urtebeteko auzolanaren ostean, maiatzean SUMendi Eguna antolatu zuten, “aisialdi askea eta auzoari zuzendutako proiektuak” bultzatzeko helburuarekin. “Auzoarekiko harremana eta zaintza kolektiboa” landu nahi dituzte bereziki SUMendiko kideek.

Gazte Emantzipaziorako Sarea

Maiatzaren 29an, “etxebizitza duina bermatuta ez duen gazte orori okupatzeko” deia luzatuz aurkeztu zuen GESek bere burua. Lehenago, apirilean, Ensanche 21en hiru eraikin okupatu zituen gazte talde batek Alde Zaharrean, sei urtez hutsik egon ostean. Ondoren,

Ezkerretik eskuinera:
SUMendi Eguna antolatu zuten lokalaren lehen urteurrena ospatzeko (SUMendiren argazkia).
2011tik 2014ra bitartean, San Francisco kaleko 3. zenbakia okupatu zuen gazte talde batek.
Maiatzaren 29an aurkeztu zuten Gazte Emantzipaziorako Sarea: etxebizitza duina bermatuta ez duen gazte orori okupatzeko deia luzatu zion (Hala Bediren argazkia).

HITZ GUTXITAN

Hiriaren etorkizuna irudikatzeko eskatuta, argi mintzo dira gazteak:

“Okupazioa ez da helburua, tresna baizik. Negoziatzeko prest ote gauden? Zergatik ez? Baina duintasunez”
(Errekaleor Bizirik)

“Errekaleorreko argi mozketaren harira emandako erantzuna ikaragarria izan zen. Esperientzia sinboliko hori etorkizunean erabili behar dugu”
(SUMendi)

“Autogestioaren bidean sakondu beharko genuke. Institutuzioak, zenbat eta urrunago, orduan eta hobeto”
(Gasteizko Gaztetxea)

“Noiz arte jarraituko dugu Gasteizen Okupazio Bulegorik gabe?”
(Arkillos 10)

“Ez dakit Urtaran Gasteizko alkate izango den berrira, baina ziur naiz etxebizitza huts gutxiago egongo direla”
(GES)

“argi mozketak, identifikazioak eta mehatxuak” salatu dituzte. Bitartean, oihartzun mediatikorik gabeko beste okupazio batzuk egiten ari dira, eta hala, aurtengo abuztuaren 3an, Corre kaleko

127. zenbakiko eraikin oso bat okupatu zuen beste gazte talde batek.

Martxoko Iraultzaren seme-alabak

Okupazio mugimendu honen bilakara eta testuingurua ulertzeko gako bat azpimarratu du GESeko kide batek: “Errekaleor okupatzeko ideia Zaramagako eliza okupatu zenean jaio zen, 2013ko martxoaren 3an, eta irailean gauzatu zen”.

Gaztetxeko kideak ere “belaunaldi berri bat” identifikatu du 2012an Gasteizko gazte mugimenduak abiatutako ‘Martxoko Iraultza’-rekin batera. Badi-rudi ‘Gazte Blokea’-k hazia erein zuela. 2008tik datozen krisialdi ekonomikoa, langabezia, prekarietatea, Euskal Herriko gatazka politikoaren “noraiea” eta abar luze bat ere agertzen da fenomeno honen atzean.

“Gasteizen denok ezagutzen dugu elkar”, dio SUMendiko kide batek, proiektuen arteko harremanak eta elkarlana goraiatuz. “Errekaleor txinparta izan da eta orain hedatzen ari da”.

Marotoren itzal luzea

Ensanche 21 hirigintza elkarte publikoak 111,5 milioi euro zituen kutxan Javier Marotok alkatetza hartu zuenean; legealdia bukatu zuenean, ordea, 20 milioi zorra. Gaztetxeko kideak hitzak jarri dizkie kalean entzuten diren zurumurrei: “Argi dago PP eta EAJren arteko itunaren testuinguruan, Marotoren itzalak eragina izan duela Urtaranen jarrera aldaketan, Bizkaian egoitza duen Euzkadi Buru Batzarraren bitartez”.

“Hau ez da Bilbo. Urtaranek ez daki non sartu den. Ez dituzte ezta prozedura judizialak ondo egiten. Badakite ezin dutela Errekaleor desalojatu, baina alarma piztu dute ustelkeria eta trapu zikinak ezkutatzeko”, gehitu du GESeko kide batek. ■

PAGOA

kafe antzokia

OIARTZUN

URRIAK

13

22:00

TENPORA

+ IGOR ARZUAGA

SARRERAK

10€

SARRERA + CD

15€

OIARTZUN
AMAZKAR, ELORSORO,
PAGOA KAFE ANTZOKIA.

DONOSTIA
DONOSTI ROCK.

ERRETERIA
ARKAITZA TABERNA.

ONLINE
TICKETMASTER,
TICKETEA, COLECTIVIA,
MAUKA, OFERPLAN,
KUTXABANK.



www.pagoa.eus

PAGOALDEA 7,
20180 OIARTZUN

TEL. 619 421 153

OSTIRALAK ETA LARUNBATAK
17:00 - 06:00



berria

ARGIA

an^oza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



EUSKAL
GARAGARDOA

EUSKAL HERRI BERRIKO ARTISAU GARAGARDOA

Errekaleor

Euskararen arnasmune itoko du Gasteizko Udalak auzoa eraisten badu

Errekaleor Auzo Askearen laugarren urteurrena betetzera doanean, Gasteizko udal-gobernuak auzoa eraisteko prozedura azkartu du berriki, aste gutxiren buruan gazte batzuek sortu zuten bizitzeko espazio alternatiboa desagerrarazteko asmoz. Gauza asko gertatzen ari da Arabako inguru horretan, eta horietako bat euskararentzat sortu den arnasmunea da. Hori ere galduko litzateke asmo ezkutuekin abiatutako eraiste-agindua gauzatzen bada.



Beñat Garaio

@BGaraio

ARGAZKIA: DOSPORDOS

Nork esango zien 60ko hamarkadan Espainiako Estatutik Gasteizera lanera etorri ziren familia horietako batzuei hain baldintza txarretan bizi beharko zirela? Oinarritzko zerbitzuak doi-doi zituzten etxe batzuetan bizi ziren, beren lantokietatik gertu, baina Gasteizko erdialdetik hain urrun. Orduan ere txakurrak oinutsik ibiltzen ziren Euskal Herrian eta Gasteizko *Un Mundo Mejor* auzoa, hau da, Errekaleor, bertako biztanleek hornitu, aberastu eta hobetu zuten, auzolanean, nola bestela. Nork esango zien gaztelaniaz mintzo ziren Extremadura eta Gaztelako langile-familia horiei euren auzoan desjabetze masiboak egingo zituztela espekulazioaren izenean, eta ondoren, euskaraz mintzo ziren gazte batzuek okupatuko zutela Errekaleor, mundu hobe bat egunerokoan praktikan jartzeko asmoz?

30 bat lagun elkartu dira Errekaleorreko gaztetxean antiespezismoari buruz eztabaidatzeko. Euskaraz da eztabaida eta euskaraz ez dakitenen ondoan auzokide batzuk eseri dira esandakoak

gaztelaniara itzultzeko. Errekaleor Auzo Askea da hau, Gasteizko euskararen arnasmunea.

Familia transmisioz sortua ez den arnasmunea

Manex Agirrek 2017ko maiatzean Arabako Alean idatzitako *Errekaleor: inpaktu linguistikoa* artikuluan ohartarazi zuen Errekaleorreko arnasmunea birrintzeak izango zuen inpaktu linguistikoaz eta arrazoi (potolo) bat gehiago eman zuen bizi-eredu alternatiboa posible den oasi hau sostengatzeko. Bere hitzetan, baina, Errekaleor bestelako arnasmunea da UEMAk udalerriekin –eta bertan egoteko baldintzak betetzen dituztenekin– alderatuta. Izan ere, arnasmune sortu berria da, erabaki esplizitu batetik sortu dena eta ez familia transmisioetik sortua. Errekaleorreko eta bertako euskaldunek, Agirreren hitzetan, erakutsi dute euskaraz bizi daitekeela esparru sozial ireki eta autokudeatu batean, erakunde beharrik gabe eta hitunen hautu pertsonal batetik abiatuta.



Egiari zor, arnasmunea da Errekaleor, euskaraz hitz egiteko gaitasuna dutelako bertan bizi diren gehienek, eta euskaraz mintzo direlako askotan. Hala ere, UEMAk arnasmuneak maila ezberdinetan sailkatzen dituen bezala, Errekaleor ere arnasmune berezia da, bere indargune, antzekotasun eta ñabardurekin.

Gehienak testuinguru euskaldunetatik datoz

Auzoko indarguneetatik hasiko gara: auzo euskalduna da ez bairrik gabe eta Errekaleor Auzo Askea osatzen dutenen gehiengo testuinguru (oso) euskaldunetatik datorren gazte jendea da. Gasteizera ikastera joan eta ikasketak amaituta auzoan gelditu diren gazte euskaldunak dira muina. Horientzako euskaraz hitz egitea modu naturalean sortzen den jokabidea da, ohitura horrelakoa delako eta erosoago mintzo direlako. Horrek bermatzen du euskararen erabilera altua izatea eta horrek bermatzen du euskaraz ez dakiten mardildar eta txiletar batek euskaraz ikas-



tea han. Baina horren gainetik, gehien-
goa den euskaldun osoen multzo honek
ahalbidetzen du euskararen garrantzia
Errekaleorren, horiek erabaki dutela-
ko auzokideek 'marko formala' deitzen
dioten horretan euskara nagusi izatea,
hau da, euskara izatea Errekaleorreko
"hizkuntza ofiziala" (asanblada, eztabai-
da eta abarretan).

Hala ere, Euskal Herriko beste arnas-
gune batzuetan bezala, badaude euska-
rak irabazteko dituen espazio batzuk.
Lehenik eta behin, auzokidea eta bisita-
ria ohartuko dira elkarriketa informal
ugari gaztelaniaz direla, ez baitira gutxi
gaztelaniaz euskaraz baino hobeto mol-
datzen direnak –gehienbat testuinguru
ez hain euskaldunetatik datozenak, be-
reziki Gasteiztik-. Egitasmoak duen era-
kargarritasunarengatik jende ez euskal-
dun asko iritsi da auzora eta horregatik
jatorrizko euskaldun asko gaztelaniara
pasatzen ari dira. Hortaz, esparru for-
malean euskara nagusi den bezala, hor-
tik aterata gaztelania garrantzi gehiago
hartzen du. Ohikoa da, adibidez, lan-tal-

*Euskara batez ere eremu formalean bermatzen
dute Errekaleorren eta gaztelania errazago
entzuten da espazio informalean.*

de txikietako bilera batzuk gaztelaniaz
izatea, batzuk "e, bilera osoa gaztelaniaz
egin dugu!" esan arte.

Errekaleortarrak hainbat lan-talde-
tan murgilduta daude, izan 'Ongi Eto-
rri' edo izan baratzea, eta euskararen
alde lanean aritzeko denbora atera du-
ten auzokideak ez dira asko, eta bere
gain hartu behar izan dute zama osoa.
Euskararen aldeko ekintzaileak erres-
petatuak dira eta auzokideek euskaraz
egiten dute beraiekin euren hizkuntza
gaitasunak uzten dien neurrian, baina
euskaltzaleak elkarriketan ez daude-
nean hizkuntza hautuaren logika alda-
korra itzultzen da. Gaztelaniaz ondo
moldatzen ez diren euskaldunekin edo
bigarren hizkuntza frantsesa dutenekin
gauza bera gertatzen da. Horiek ingu-
ruan dabiltzanean euskararen erabilera
nabarmen igotzen da, errekkaleortarre-

saikera egiten dute euskaraz egiteko
haiekin.

Alabaina, euskalduna da Errekaleor:
euskara eskolak antolatu dituzte ez da-
kitenek ikas dezaten, joan den udan
'Asketegia' antolatu dute euskaraz hitz
egiten askatzeko, euskara da hizkuntza
nagusia auzoan eta euskaratik eraikita-
koa da Errekaleorren ahotsa.

Zer gertatzen da, baina, Errekaleorren
euskara gehiago ez hitz egiteko? Haste-
ko, eta hau azpimarratzea garrantzitsua
da, kolokan dago auzoaren etorkizuna
eta hori da lehentasuna aspaldian. Ez
dago euskararen inguruan eztabaida sa-
konik antolatzeko eta auzoko hizkuntza
ideologian eta praktiketan moldaketak
egiteko girorik. Hainbat 'fronte' irekita
dauden heinean, euskararena batzuetan
bazterrean gelditu da, eta adibidez, au-
zokide berri bat sartzean hau ez da beti
euskalduna.

Ama Zuriaren enparantzan ekitaldia euskaraz

Gasteizko urbanizazioaz arduratzen den
Ensanche 21eko bilera egin zuten irai-
laren 14an eta Errekaleor Bizirik mu-
gimenduak asanblada irekia antolatu
zuen Gasteizko Ama Zuriaren Enparan-
tzan auzoaren aldeko sostengua indartu
zedin. Bilera horrek Errekaleor auzoak
duen hizkuntza egoeraren irudi ezin
egokiagoa eskaini zuen: ekitaldia ia bere
osotasunean euskaraz,aldi bereko itzul-
pena euskaraz ez dakitenentzako eta
asanbladan zegoen jendea bere horre-
tan euskaraz eta gaztelaniaz egiten, per-
tsonen eta taldeen ezaugarrien arabera.

Hurrengo asteak funtsezkoak izango
dira Errekaleorren biziraupenerako,
izan ere, Gasteizko Udalak martxan ja-
rri du auzoa eraisteko prozesua, BIM
Survey enpresari emanek prozedura
abiatzeko enkargua. Errekaleor Auzo
Askeari iraungitze data jarri diote egi-
tasmoarekin eroso ez daudenek, noiz
eta okupazioak ekarri duen egitasmo
iraultzaile honen laugarren urteurre-
narekin batera. Elikadura burujabe-
tza, energia garbietarako trantsizioa,
feminismoa, eta beste daude jokoan.
Euskarak ere asko du jokoan, Gasteizko
euskararen arnagune nagusia (edo
nagusienetako bat, bestela ere) indar-
tuz joan baitaiteke Errekaleorrek bi-
zirrik jarraitzen duen egun bakoitzeko.
Zer esanik ez igarotzen den urte bakoit-
tzeko. ■

Gar asko



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Dagoeneko piztu dugu sukaldeko eko-
nomika etxean. Uda guztia surik gabe
igaro ondoren lehen suak dena aldatzen
du: ateak eta leihoak itxi behar dira, ke
usaina pixkanaka etxe guztiaz jabetuko
da, uda bazter batean zokoratuta pasa
duen sofa sutondora ekarri, otorduak
beste abiadura batean egingo dira su
gainean...

Aurtengo su sasoiari iaz erre gabe
geratutako su egur kondarrekin ekin
diogu: sasiakazia (*Robinia pseudoaca-*
cia) eta haritza (*Quercus robur*). Aurtun,
aldiz, haritz gorria edo haritz amerik-
anoa edo ipar haritza edo norteko haritza
deitzen dena ekarri dugu, *Quercus ru-*
bra. Aurtengo horrek zer portaera izan-

go ote duen ikus-
kizun da, janaria
prestatzeko beza-
la etxea berotzeko.

Urte asko ez
dela, kamioika-
da bat pago ada-
ki ekarri genuen,
Fagus sylvatica.

Pagoak izugarritzko sona du, su egile
onarena, alegia. Geure etxean bi urtez
ederki frogatu genuen. Gar ederra ema-
ten du, eta sukalderako oso ona da. Ez
hainbeste txingarretan iraun eta etxeari
luze-bero eusteko. Horretarako, hariz-
tarrak hobeak dira. Egur gogor eta as-
tunak; aipagarrienak abaritza (*Quercus*



coccifera), erkametzta (*Quercus faginea*),
ametza (*Quercus pyrenaica*), artelatza
(*Quercus suber*), artea (*Quercus ilex*) eta
tartaka edo zarbazta (*Quercus ilex su-*
besp ballota) dira. Horieta batzuei
gatzeleraz, baita zenbait euskaldunek
ere, *carrasco* deitzen diote, eta "gar as-
ko"-tik datorrela esaten duenik bada. ■

II Semana del Producto Local de Pamplona

Tokiko Produktuen Iruñeko II. Astea

URRIAREN 11TIK 15ERA.
IRUÑEKO GAZTELU PLAZAN
DEL 11 AL 15 DE OCTUBRE.
PLAZA DEL CASTILLO, PAMPLONA

Habrà 25 puestos
de alimentación ecológica.
Elikadura ekologikoko
25 postu izanen dira.



Zatozi!
Te esperamos



MÁS INFORMACIÓN. INFORMAZIO GEHIAGO:
www.navarraecologica.org

Navarra Gobierno de Navarra

CPAEN NNPEK



Unión Europea



GOIERRIKO BARATZA

Denda ekologikoz gain gizarte eragile



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Ordiziako produktu ekologikoen denda txikia da Goierriko Baratza, duela 13 urte bi kideren artean sortua. "Hastapen hartan ez zegoen egungo eskaintzarik produktu ekologikoetan, eta ikusi genuen bazegoela modu horretako denda irekitzeko aukera", azaldu du Danel Etxeberria Pascual kideak. Hasieratik bi kideek garbi zuten, ordea, negozio hutsetik haragoko proiektua izanen zela abiatutakoa. Kontsumo ekologikoaren gaia gizarteratzeko lan aktiboa eginen zutela, alegia.

Eskaintza ekologikoa eta sentsibilizazioa

Tokiko produktuei garrantzia ematen diote Goierriko Baratzan, baina bertan eskaintzen dituzten salgai guztiak produkzio ekologikokoak behar dute izan. "Ekoizpen ekologikoko zigilua duten produktuak ekartzen ditugu dendara, oraingoz hori baita produktua benetan modu ekologikoan ekoiztu dela bermatzen diguna", dio Etxeberriak.

Proiektua abiatu zutenetik ekimenak antolatu dituzte gizartea sentsibilizatzeko eta formatzeko. Besteak beste, ekoizpen ekologikoko baserrietara bisi-

tak, hitzaldiak, tailerrak nahiz liburuen aurkezpenak sarritan antolatu dituzte Goierriko Baratzan.

Hamabostaldi ekologikoa eta kontsumo taldearen sorrera

Duela zenbait urtetik Goierriko hamabostaldi ekologikoa antolatzen du Goierriko Baratzak, Zeraingo Udalarekin elkarlanean. Eskualdeko hainbat herritan ekimen ugari egoten dira irailaren bukaerako egunetan, eta aurtan ere egitarau aberatsa osatu dute hamabostaldirako: hesteetako bakterien inguruko tailerra, baratzegintza ekologikoaren gaineko hitzaldia, Goieko haragi ekologikoaren elkartaren aurkezpena eta ekoizpen ekologikoko baserri batera bisita.

Aurtengoan berrikuntza eta albiste ona izan da kontsumo talde berriaren aurkezpena izan dutela hamabostaldian: "Kontsumo taldea Basherrri sarearen irizpideen barruan sortu den taldea da. Ataungo ekoizle ekologiko batek saskiak prestatuko ditu astero izena eman duten hamalau familientzat", azaldu digu Etxeberriak. Kontsumo talde berria sortzeko laguntzen aritu da Goierriko Baratza. "Ekoizleari babesa eskaini genion, uste dugulako gure lana ere badela bestelako ereduetan lanean dabilen jendea laguntzea". ■

www.bizibaratzea.eus

LIBURUEN AURKEZPENAK

Urriak 7: Gasteiz

11:30ean Foruen Plazan *Landareak Lantzen* agenda-liburuaren aurkezpena, Bionekaraba azokan. Jakoba Errekondok aurkezpena egin eta kontsultategia zabalduko du.

Urriak 10: Gasteiz

18:00etan Olarizuko parketxean. *Altza Porru* Komikihitzaldia eta kontsultategia, Jakoba Errekondo eta marrazkilariekin.

Urriak 19: Hondarribia

19:00etan Kultur Etxean *Landareak Lantzen* agenda-liburuaren aurkezpena, Jakoba Errekondoren eskutik.

Urriak 20: Basauri

9:30ean Ibaigane Kultur Etxean *Landareak Lantzen* agenda-liburuaren aurkezpena egingo du Jakoba Errekondok.

Urriak 29: Tolosa

Bedaioako Azoka Berezian *Landareak Lantzen* agenda-liburuaren aurkezpena, Jakoba Errekondoren eskutik.

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Urriak 4: Ezkio

Igartubeiti Dolare-Baserri Museoa bi-sita gidatua, antigoaleko sagardogintza ezagutzeko.

Urriak 4: Hazparne

Tustaz Tusta erakusketaren aurkezpena, 17:30ean familia baratzetan, Jauregia muinoan. Kanpoko bulegoa kolektiboak antolatua, miaketa artistiko eta mediantzuna da: "muga" kontzeptua aztertzen du, landareetan oinarrituta.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

KIMUTX LIBURUA

1

Izaki mitologikoen eskolan jolastuz eta kantatuz

KIMUTX proiektuaren asmo nagusia, zero-hamabi urte bitarteko haurrek, eguneroko ekintza zehatz batzuk modu alaian, jostagarrian eta maitakorrean gauzatzen laguntzea da, burututako jarduerak Euskal Herriko kulturaren tes-tuinguruan kokatuz. Horretarako, kantuan oinarrituko gara, batez ere, honek duen balioagatik eta ematen dituen onurengatik. Hala ere, helburua lortzeko hiru baliabide erabiliko dira; musika, doinu eta erritmo egokietan; hizkuntza, bai bertsotan, bai ipuinetan islaturik; eta irudiak. Haurrak munduari zabalik dauden pertsonak dira, eta beraien baitan daude gaitasun eta erantzun guztiak. Maitasunez beraien jardun askean oinarrituz esperientziak eskaintzen dizkion giro eta inguruneak sortuz, umearen erritmoa errespetatuz eta hauraren behar eta interesetatik abiatuta, ingurua ezagutzen lagunduko dion giroa sortzea da lan honen oinarritzko helburuetako bat.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



KIMUTX

Liburuak erosteko: www.argia.eus/denda

Liburuak ezagutzeko: www.kimutx.eu

#autoeraketa
#sormena
#hezikuntza
#kultura libre

Urriko sariak

1



Kimutx liburuak
4 ale

2



Bilgune feministaren
"ETEN tratu txarrak diskoa"
2 KD

3



Ekologistak Martxan
"Euskal Herria: ezkutuko zorra"
4 DVD

4



Mugarik gabekoen "Defensoras"
emakumeon eskubideen alde
2 elkarritzeta liburuxka

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



ARGIA Jendea bilduko duen topaketa Gasteizen



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Lerrook idazten ari naizela oraindik urriaren 1a igaro gabe badago ere, da-goeneko imajinatzen ditut zu, irakurle, hitz hauek leitzen ari zaren egun horretan aldizkari eta egunkariak botako dituzten lerro-buruak. Aukera posible guztiak irudikatzea ez dakit errazaden, baina nire buruan sartzen direnak behintzat, ikusten ditut. Beraz, pentsatzen dut zu ere, lagun, gertatu dena gertatu dela ere, hurrengo egunetako erreakzioei begira egongo zarela.

Baina tira, urriaren 1ean mundua bukatzen zela pentsatzen zenutenoi, ongi etorri; data horrek panorama, haiena bezala gurea, modu batera edo bestera aldatuko duela zalantzan jartzen ez badut ere, munduak aurrera darrai. Baita gure mundu txikiak ere. Argia Eguna gainean dugu, eta laster elkartuko gara jada urterokoa bihurtzen ari den zitan Argia jendearekin.

Argiazaleen topaketari txoko berezia eskaintzen zaio egitarauan, eta Gasteizen izango dugu aukera guztiok batu eta ARGIA proiektuaz aritzeko. Lehengo urtean, Ondarroan, harpidetza eredu berrirako bidea ireki genuen, eta han

jasotako iritziek osatu zuten ondorengo hilabeteetan aurkeztuko zen harpidetza kanpaina: zerbait finkoa prezio jakin baten truke jaso beharrean, harpide bakoitzak erabakitzen du, gaur egun, zer eman nahi dion ARGIA proiektuari eta zer jaso nahi duen horren trukean. Araban, berriz, kanpaina horren balorazioa egitea da helburua batetik, Argia jendeak aldaketa nola ikusi duen ezagutu, eta proiektua bera nola ikusten duen jaso. Bere ahul eta indarguneekin.

Baina ez da horretan soilik geratuko, sorpresaren bat edo beste ere prestatuta baitago urriaren 7rako. Oraingoz aurreratu dezakedan bakarra da hogeitaz direla ARGIAk Internetarako saltoa egin zuela, euskarazko komunikabideetan *Ttipi-ttapparekin* batera lehenengoa, eta horrek emango duela zeresana oraindik ere bukatu ez den 2017 honetan.

ARGIArentzat izugarri garrantzitsua izaten da zita hau, bere komunitatearekin aurrez aurre egoteko aukera baita, eta Euskal Herriko Argiazaleak berriz ikusteko gogotsu, bertaratzeko gonbidapena irekita duzue. Gasteizko Alde Zaharrean, urriaren 7an, 12:30ean. ■



DANI BLANCO

Itxaro Bordaren baratzeari buruzko gogoetak "Landareak Lantzen" agenda-liburuaren aurkezpenean

Irailaren 28an, Donostiako Bretxa azokan, baserritar postuen artean aurkeztu genuen *Landareak Lantzen* Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak eginiko gida-liburu berria. Giro bikaina jarri zuten Larraitx eta Mikel Alkorta trikitilariak eta Gureak Taldearen pintxoek herritarren ahasabaia goxatu zuten.

Itxaro Bordak liburu honek sorrarazitako gogoetak azaldu zituen: "Sentitzen dugu gure baitan baratzet baten beharra. Izan daiteke baratzet filosofikoa, norberak egin behar duela berea, besteen erranetaz eta jendartearen kontrolaz axolatu gabe. Bestetik, baratzet orain indar handia ari da hartzen, laborantza ekoizpen industrialaren nazka ari da hedatzen, jendea gaixotzen da laborantza mota horrekin, eta Bretxako merkatu hau bezala, Baionako merkatua bezala, berriz itzultzen dira ohiturazko laborariak beren ekoizpenak saltzera merkatuetan eta bezeroaz harago jendeekin harremanetan jartzen gara. Baratzet amodio seinale ere bada, Pier Paul Berzaitzen *Baratzet bat nahi dizut egin* kantu arrakastatsua erakusten duenez. Kantu horrek baratzet partikular, kolektibo eta unibertsalera eramaten gaitu. Gomentatzen dizuet *Landareak Lantzen* liburuko hileroko eta asteroko lan horiek praktikan jartzera, eta bakoitza bere baratzet lantzerat".

EMAKUME BAT TXANPONAREN AURKIAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Erroma edo Tusculum, K.a. 77. urtea. Elkarrengandik oso hurbil dauden bi hirietako batean jaio zen Fulvia Flaka Banbalia. Aita Marko Fulvio Banbalio senataria zuen eta ama Senpronio Graka, Grakoen familia boteretsukoa. Ondasunak amaren aldetik zetozkion, beraz, baina ez dirudi anbizio politikoa aitarengandik jaso zuenik, Banbalio izena zalantzatia eta ilauna izateagatik jarri baitzioten. Fulviari buruz Plutarkok esan zuen, “iruteko, josteko edo beste emakumeekin foroan berriketan aritzeko inolako interesik” ez zeukala. Baina, emakumea izanik, boterera iristeko bitarteko bat behar zuen: senar egoki bat... edo hiru. Senarrek politikarako sarbidea jarriko zuten eta Fulviak, sestertzioak.

Lehenengo, Publio Klodio Pulkro politikari demagogo eta populistarekin ezkondu zen. Julio Zesarren aldean lerratuta, hura Galiara joan zenean hiriburuko boterea Klodioren eskuetan utzi zuen. Errepublikaren azken urte nahasi haietan erromatar boteretsuak oso zatituta zeuden eta Klodiok indarkeria erruz erabili zuen etsaien aurka, nagusiki Marko Tulio Zizeron eta haren jarraitzaileen aurka. Azkenean, indarrez hil zuten K.a. 57. urtean.

Alarguna Kaio Eskribonio Kurionekin ezkondu zen orduan. Eta haren karrera politikoa nabarmen gora egin zuen handik aurrera. Berrirori ere Julio Zesarren aldeko jarrera senar-emazteen mesederako izan zen eta Afrikako espedizioaren komandan-



PRADO MUSEOA

Fulvia eta Marko Antonio edo Fulviaren mendekua, Francisco Maura Montaner (1888).

Margolanean Fulvia ageri da exekutatu berri zuten Marko Tulio Zizeronen buru trenkatua laidotzen.

teburu izendatu zuten Kurion. Parrandan iaioagoa omen zen estrategia militarrean baino, eta Utikan lehorreratu eta berehala hil zuten Fulviaren bigarren senarra.

Marko Antonio hirugarren senarraren eskutik lortu zuen Fulviak eragin politikorik handiena, Oktavio –gerora Augusto enperadorea izango zena– eta Lepidorekin batera triunbiro izendatu baitzuten ezkondu eta urte gutxira. Bien etsai nagusietako bat, Zizeron, hiltzeko agindua eman zuten Triunbiratua osatu eta berehala, K.a. 43. urtean. Diotenez, Fulviak hizlariaren buru moztuari tu egin zion, eta mihia ilean zerman urezko urkila batez zulatu.

Baina senarra Egiptora –Kleopatra VII.aren albora– joan zenean, Erroman tirabirak piztu ziren eta Fulviak Oktavioaren aurkako kanpaina abiatu zuen. Lau

hilabete eskasean Oktaviok mendeen hartu zuen eta Sizionera erbesteratu zuen. Han hil zen K.a. 40. urtean, itxuraz, bat-bateko gaixotasun batek jota.

Plutarkok zioen Kleopatrank Fulviari eskertu behar ziola Marko Antoniok emakumeei obeditzen ikasi izana. Baina ez Plutarkok ez Fulvia hil eta gero hari buruz idatzi zutenek, ez zuten hura laudorio moduan bota. Fulvia *impotentia muliebris* zelakoaren paradigma zen: bere burua kontrolatzen ez zuen emakumea, neurririk ez zuena, pasioek menderatua, eta ez gizonezkoek, beharko lukeen bezala, moralki ahula eta makurra.

Eta, hala ere, haren eragina metalean grabatuta geratu zen betiko. Fulvia izan zen erromatar txanponetan agertu zen lehen emakume ez mitologikoa. ■




STADTARCHÄOLOGIE AUGSBURG

Emakumeek zabaldu zuten Brontze Aroa

Lech ibaiaren haranean, Austria eta Alemaniaren arteko mugan, duela 4.000 urte inguru ehortzitate 84 banakoren arrastoak aztertu dituzte eta emaitzak *PNAS* aldizkarian argitaratu. Pertsona haien DNAk erakusten du emakumezkoen aniztasun genetikoa askoz nabarmenagoa zela gizonezkoena baino. Beste modu batera esan-

da, gizonezkoak nagusiki bertakoak ziren, eta emakumezkoak, aldiz, ez. Horrek esan nahi du emakumeek migratu egiten zutela familiak osatzeko, eta, hala, endogamiaren kalteak saihesteaz gain, giza taldeen ohiturak eta ezagutzak zabaldu zituztela. Truke hori funtsezkoa izan zen Neolitoa amaitu eta Brontze Aroa abiatzeko. ■



... bi zitroi doratü

1970eko hamarkadaren erditsutan Euskal Herri osoak *Atharratzeko gazteluko kantua* ezagutu zuen Benito Lertxundiren ahotik, 1975eko *Eta maita herria* albumean. Beste titulu batekin ere abesten zen Zuberoako bi haranetan. Alabaina, Ozazen bada oraindik jauregi bat, herriaren sarreran, eta han gertatu zen bere gogoaren aurka ezkondu eta Espainiara desterratu alaba gaizoaren tragedia.



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Ozaze nahiz Atharratzeko jauretxeetako ezkaratzak hotzak irudikatzen ditugu, partitzeko tenore latzak, horma lodietatik at protestanteen eta katolikoen arteko gerrillak bazterrak sutan jartzen zituztela. Pier Paul Berzaitz muskildiarak 1997an, abestian oinarrituz, pastoral orraztu zuenean giro hori ekarri zuen taula gainera. Atharratzeko jauna Junes Xuburu erraldoiak gorpuztu zuen. Oroitzen?

*Atharratze hiria, hiri ordoki
Hur handi bat badizü alde bateti
Erregeren bidea erdi-erditi
Maria Maidalena beste aldeti.*

Atharratze betidanik izan da Pirinioak alderik alde pasatzeko norabidean geldiune aberatsa. Izaba edo Otsagira zihoan bidaiariak derrigor Pettarreko hiri nagusia zehartzekoa zuen, pausatzeko, afaltzeko edo egun gogorren bezperan apailatzeko, bereziki bortuak elurrez estaliak zirenean.

Erljio gerren denboran, 1562 eta 1598 artean, armada legal eta ilegal asko bazebilen ibar ilun horietatik eta erraza zitzaien borrokaldi laburrak sustatzea iparraldean, zaldi lauhazka soilaz gero hegoaldean ezkutatzera lehiatzeko. Atharratzeko jauna buruzagi borti-

tza zen, Labriteko Joanak bere lurretan ezarri protestanteen fedea jarraitzen zutenen kontra aritzeko: Lüküzeko Charlesek Amikuzeko eta Zuberoako konbertitu berriak zituen partida.

*Ozaze jaurgainian bi zitroi doratü
Atharratzeko jaunak bata dü galdatü.
Üken dü arrapostü ez direla huntü,
Huntürük direnean batto ükenen dü.*

Jean Dominique Sallaberry Mauleko notarioak kanta publikatu zuen bere musika eta frantsesezko itzulpenarekin *Chants populaires du Pays Basque* bilduman 1870ean. Jatorrizko bertsoa Parisko Liburutegi Nazionalan aurkitzen da.

Lüküzeko Jauna (1535-1604) aldi berean Atharratze, Ahatsa, Izura eta Landibarreko lurren jabea zen. 1571n milizia kristauen burua hartu zuen eta 1587an Mauleko gaztelutik lekuak hustu behar izan zituen, Bela eta Beltzuntzetarren gudaroste higanoten aitzinean.

Otsagira eskapatu zen, menturaz, *Atharratze Jauregian* abestiko Ozaze Jaurgaineko Maria bere bigarren emaztearekin. 1593an Zuberoara itzuli zuenean, sei urteren buruan, Labriteko Henri jada Frantziako eta Nafarroako errege katolikoa bilakatu zen.

Kasik hogeita hamar urteko adin ezberdintasuna izanagatik, Mariarekiko bikotetik sei ume sortu ziren. Lehen eta bigarren ezkontzako haurrek ondasunak eta funtsak partekatzeko arazoak ukan zituzten: Lüküze eta Jaurgain sendiak ohorez bezain diruz ezin aseak zitezkeen. Ohidurazko eresiak XIX. mendean ikertu zituen Jean de Jaurgain familia horretako ondorengoetatik zen.

Erran behar da Zuberoan, Amikuzen eta Biduzeko haranean protestantismoa hedatu zela suaren antzera Nafarroako erregina konbertitu zen bezain laster. 1522an Pauen finkaturiko gortetik pasatzen ziren kalbinismoa eratzen zuten espiritu distiratsuak eta handiak. Hasierean katolikoekiko arazorik ez zegoen, baina agudo iskanbilak sortu ziren bi fede bideen artean. Lüküzeko Jaunak ez zuen barkatu eta desterratu izan zen arte ez zukeen bakerik eman.

Ozaze edo Atharratzeko gazteluetan Maria eta Klara ziren Lüküzeko jauna ahamen golos bakarrean klikatuko zituen bi zitroi doratüak, ez ziren arras onduak ezen Mariak hemezortzi urte baino ez zituelako. Neskatxaren inguruan aita eta ama bihozgabeak susmatzen ditugu, ahizpa solaskidea, baita Ongriako erregearen bezain Atharratzeko Sala etxeko premu zainartaren itzalak ere.

Atharratze jauregian edo *Ozazeko Jaurgainian* kantoreko hamar kopletan elementu mitologiko pare bat kausitzen da. Lehenik hor dugu zazpi zenbakia, Mariak zazpi urte hauetan eri dela aitortzen duela. Gero Ongria hor daukagu, mendeen azkeneraino misterio geratuko dena.

Ez dakigu zeri deitzen zion bertsolariak Ongria... etxe izen bat ala Europa ekialdeko Hungaria herrialdearen aipamen poetikoa zenez, Lüküzeko Jaunaren indarra eta boterea irudikatzen: hungariarrak orduan Soliman turkiarraren inbasioaren kontra borrokatzen ziren. Berriak eta ospeak alabaina agudo kurrutzen ziren.

Aitak alaba saldu zion Lüküzeko Jaunari *miga bat bezala*, hau da tratua egin ondoan eta prezio onean eroslearentzat, Jaurgain eta Lüküze handikiak uztartzeko.

*Aita saldu naüzü miga bat bezala
Ama bizi üken banü, aita zü bezala,
Enündüzün ez joanen Ongrian behera
Bena bai ezkuntüren Atharratzeko Salala.*

Bi ahizpen arteko elkarriketa baten moduan harilkatzen da balada, aita izkina batean entzuten dagokeela. Mariak ez du Ongriako erregea ikusteko gutiziarik eta Klara enkargatzen du lazki eri dela jakin arazteko:

*Ahizpa juan zite portaliala
Ingoiti horra düzü Ongriako erregia
Hari erran izozü ni eri nizala
Zazpi urte hontan ohian nizala!*

Klarak nabaritzen du Ongriako errege gosetia ez duela Mariaren hitz bakarra

sinetsiko. Errealitatea onartzeko eta, gutxienez gogo onez, eztei arropa zuria janztea aholkatzen dio:

*Ahizpa ez nükezü ez sinetsia
Zazpi urte hontan ohian zirela
Zazpi urte hontan ohian zirela
Bera nahi dükezü jin zü ziren leküla.*

*Ahizpa jauntz ezazü arruba xuria
Nik ere jauntziren düten ene berria
Ingoiti horra düzü Ongriako erregia
Botzik kita ezazü zure sor etxea.*

Aitari zuzentzen dizkion ondoko bi kopia sailetan bi abar azkarren arteko tratua tragediaren hondamendia irakurtzen dugu: tribuko gizonak oro salmentaren partaide eta konplize ziren argiki. Bertsolariak guztiak zerrendatzen ditu beraien zereginekin:

*Aita zü izan zira ene saltzailea
Anaie gehiena dihariren hartzaile
Anaie arteko zamariz igaraile
Anaie ttipiena ene kontsolatzaile.*

Aipatzen dio halaber bere buruaz beste egiteko duen xedea. Ozazetik Atharratzera joanen dira elkarrekin eta dolutan itoak itzuliko etxera. Ühaitza ibaiaren hegietatik ibiltzen irudikatzen ditugu euriak Pettarreko berdeak laudorioz argitzen dituen bitartean:

*Aita, joanen gira oro alkarreki
Etxerat jinen zira xangri handireki
Bihotza kargatürük begiak bustirik
Eta zure alaba tunban ehortzirik.*

Ozazeko Jaurgainian bertsioan alabak amari leporatzen dio salmenta eta ho-

nen ondorio zitelen zerrenda:

*Ama saldu naüzü bige bat bezala
Bai eta desterratü, oi Española
Aita bizi üken banü, ama zü bezala,
Ez nündüzün ezkuntüren Atharratzeko Salala.*

Ahizparekiko eleetatik ikasten dugu Maria –historiografiak irakasten digu abestiko Klararen solaskidearen izena– gizon gazte batez maitemindua zela, Atharratzeko Salaz preseski. Etorriko da mutikoa neskaren hilotzaren bila, duinki ehortzia izateko:

*Ahizpa zuaza orai Salako leihora
Iparra ala hegoa denez jakitera
Iparra balin bada goraintzi Salari
Ene gorpitzaren txerka jin dadila sarri.*

Benito Lertxundik *Ozaze Jaurgainian*-eko bost koplak harilkatzen zituen gitarra xeheaz lagundurik, eder, baina Sallaberri notarioak bildu eresieren hamargarren puskan entzuten ditugu oraindik Atharratzeko zeinuak agonia-kanpaiak jotzen eta hango gazteria beltzez jantzia hil kutxaren atzetik ibilki:

Atharratzeko zenüak berak arrapikatzen

Hanko jente gaztea beltzez da beztitzen

*Andere Santa Klara hantik partitzen
Haren peko zamaria ürrez da zelatzen.*

Maria eta Klara ahizpek beraien destinoa onartu ote zuten? Galderak bizirik dirau. Koblakariaren lekukotasunak istorio honen bukaera irekia uzten digu, zirraragarri. ■

**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
2017**

Finalurrekoak 1.itzulia

Urriak 28, BASTIDA

Azaroak 1, IRUN

Azaroak 4, MAULE-LEXTARRE

Azaroak 12, DURANGO

Antolatzailea

Laguntzailea



ARGIA

bertsozale.eus

Sagarrak eta laranjak

Zeruraino hegan egiten

Juan Ignacio Pérez Iglesias



JAKINDURIEK MUNDUE ERREKO DAU ZIKLOKO AZKEN SAIOA

Bilboko Kafe Antzokian, irailaren 24an.

Bertsolariak eta zientzialariak.



Dabi Piedra

ARGAZKIA: IÑIGO SIERRA

Orain dela bi urte ideia zoro gisa hasitako esperimentuari lurralde berriak deskubritzeko ordua heldu zaio. Hala, *Jakinduriek mundue erreko dau* ikus-kizun bertsolari-zientifikoak begirada Bilbotik harago altxatu eta Bizkaiko herrietara zabaltzeko bideari ekin dio. Gai zientifikoen dibulgaziorako sortutako *Bizkaia Zientzia Plaza* egitarauan txertatu, eta lau hitzordu antolatu dituzte beste horrenbeste lekutan: Ondarroan, Algortan, Igorren eta, amaitzeko, Bilbon.

Sagarrek eta laranjak ezin dira batu, hala irakasten dute matematikaren oinarriak ikasten hasi bezain laster. Sagarrek alde batetik, laranjak bestetik. Bada, itxuraz zerikusirik ez duten bi alorretako ordezkari izanda ere, zientzialariak eta bertsolariak bai, batu daitezke. Eta emaitza biribila da: gai zientifikoak modu atseginean azalduta eta bertsolariak es-tualdian, ohiko gaietatik kanpo kantatu beharrean, entzuleen gozamenetarako.

Bilboko Kafe Antzokiko saioan, Kike Amonarriz aurkezlearen aginduetara,

hiru zientzialari: Juan Ignazio Perez, Miren Basaras eta Jone Uria; eta hiru bertsolari: Andoni Egaña, Alaia Martin eta Unai Iturriaga. Protagonista horiekin, denbora kontzeptu erlatibo bilakatu zen, ia bi orduko jarduna ziztu bizian igaro baitzen.

Lehenik eta behin, Miren Basaras mikrobiologian adituak itsasadarreko bakterioak aipatu zituen. Bilboko triatloian parte-hartzaile batzuk kutsatu zituen leptospirosia zer den azaldu zuen. Ez omen da infekzio larria, sendatzeko botikak ere badaude. Baina buruko min galanta eragin zien bertsolariei gaixotasunaren izena ahoskatu beharrak. Basarasen azalpenei adi egon zen Andoni Egaña eta, bakterioaren jatorria gogoan, triatloiarren ordeztarrei lasterketak egitea proposatu zuen.

Ondoren, hegaztiak izan ziren hizpide, Juan Ignazio Perez Iglesiasek animalien fisiologia ikertzen baitu. Entzuleak eta bertsolariak harritu zituen bere azalpenekin: arnasketa eraginkorrako bati

esker hegazti batzuk milaka metroko altueran hegan egiteko gai dira, Karakorum mendietan adibidez. "Bizidun harrigarriak" direla aipatu zuen. Ondoren, Alaia Martinek bere ondorioak agertu zituen bertsotan: "Baina hegazti horiekin, egin baliteke topo / hegazkin baten ez naiz, berriro inoiz igoko". Fin aritu zen oiartzuarra, bezperan Bertsolari Txapelketa Nagusiko final laurdene-ko saioa irabazita baitzetozen.

Arratsaldeko azken zientzialaria Jone Uria matematikaria izan zen. Egia esan, sagarra eta laranja, biak batera da Uria. Zientzialaria eta bertsolaria. Errimaren definizio matematikoa aurkitzen aha-legindu zen bere hitzaldian eta, ondoren, Egaña, Martin eta Iturriagarekin bat egin zuen, bertsotan egiteko. Azken ariketan, Iturriagak garbi utzi zuen jakinduriak ez duela mundua erreko, baina ezjakintasunak bai. Batuketak utzi eta biderkatzeko aldarria egin zuen Kike Amonarrizek, hurrengo edizioak Euskal Herri guztira hel daitezzen. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Aspaldiko partez



Igor Estankona

Minbizia, hain oldarkor hain hilgarri, poesiara-ko eta elkarrengana biltzeko aitzakia bihurtu zitzairen Jon Iñaki Lasari eta eriondoan zegoen bere osabari: "Idatzi nuen liburua ez argitaratzeko, baizik eta enkarguz. Osabari esan zioten minbizia zuela. Gu txikiak ginenean jende gutxi hiltzen zen minbiziarekin. Berarekin hitz egiteko aitzakia zen". Jon Iñaki Lasak (Gernika, 1963) *Alizia eta biok* 1982koa du (Ustela), eta 1984koa *Andaluziari ene bilduma* (Susa).

Liburu honek badauka hausnarketatik, badauka bilaketa estetikitik, badauka hizkuntza hanpatu, jaso eta kultismoz betetik ere zerbait: "Temppeliaukioko elizara bazoaz adiskidea/ eta entzuten baduzu kanpotik Chopin (...)".

Mundua badoa eta gu poesia idazten, ematen du pentsatu duela idazleak. Gauza ederren betikotasuna eta gu, paseko txoriak: "Kontatzen dazu beren historiak/ Banan banan/ Ez daukat presarik/ Nik badakit zu ez zarela logura..."


Urteen ostean poesiara itzuli denaren arrazoi metaliterarioak biltzen ditu *Bidaiak*-ek lehen piezetan. Hortxe datoz, hasierako orrialdeetan, erreferentzia eta helduleku zenbait, batzuk baikorrek, beste batzuk aski orwelldarrak: "Arseniko epel bat dastatzera/ Eric Arthur Blair jaio zen etxean, Portobellon".

Tere Irastortzak aitzin solasean dioen legez, poema hauetan toki-ize-


Bidaiak

JON IÑAKI LASA

Pamiela, 2017



Jon Iñaki Lasa idazlea
eta poeta
(Gernika-Lumo, 1963)



nak, musika, artea... era askotako aipamenak datoz. Gauden lekutik mugitu barik urrun joateko modu bat, irlak asmatzeko bide bat, baina finean geure baitara egiteko modu bat ere begitandu zait. Agerikoak ditu seinale asko, eta beste batzuk sano ezkutukoak, bihotzaren inguruko kontzeptuak, haren alde argi zein itzalekoak: "Baina jakin ezazu, Lilith/ esnatzen banaiz/ neure eskuez itoko zaitudala". Poesiak prosarantz egiten du liburu honetan, arnasa luzatzen zaie istorioei errepikapenen puruz, eta ipuin herrikoi postmoderno bihurtzen dira kasik.

Ez da erraza adieraztea sortzen duen enpatia eta, era berean, hotsasuna.

Idazlearen nahi ezinak guztiak laburbiltzen dituzten poemak dira huts egindako tiroa bezala: oihartzun egiten dute belarrietan, eta gero zaila da enpalagu sentsazio bat kentzea ahotik. ■

» DISKOA

Natura eta askatasuna hainbat aurpegitan



Iker Barandiaran
@IkerBarandiaran

Bada esanguratsua ibilbide luze eta sendoa duen musikari eta sortzaile donostiarrak bere laugarren lan luzea autoekoiztu izana. Nahiz eta argi gera bedi gaur egun auto-ekoizpena askotan ez dela gabezia baten ondorio, hautu pertsonala baizik. Gauzak honela, auto-ekoizpenak badu arriskutik eta norberak beretik eman beharretik; eta San Sebastianek, zuhaitzek bezala, ez du beldurrik. Barruan daramana askatzea da bere xedea. Beste talde batzuekin ibilia da eta azken hamarkada luzean bere proiektu pertsonalekin ausarki abiarazten da naturatik plazara. Hala, beti iruditu zait bere eskaintza dela folkyegia –lurrari lotutakoa– rock-zaleentzat eta, aldiz, folka maite dute nentzat rockeroegia. Izan ere, ahots berezia eta erregistro aberatsa dauka, sustraiak oso presente ditu beti eta, horrekin batera, arima askea erabat.

2004an eta 2009an hurrenez hurren kalera tutako *Orai* (No-CD records) eta *Ospela* (Elkar) euskal folkari eta lurrari lotuta zeuden hein batean eta haiei zor dizkiegu gure kantagintzan zizelkatutako *Atzo naiz*-en gisako perlak. Horien ostean, piztia berpiztu eta *Erraiak* (Elkar, 2012) kaleratu zuen rock indartsuarekin eta beste kultura erritmikoagoekin blaituta erabat. Piztiaren bila areto izerditsuenetaraino amildu zen.

Orain berrirori dator bueltan naturaz eta horren magiaz zipritindutako lan berriarekin, eta beste behin kamaleoniko gorpuztu zaigu, bat baino gehiago bizi direlako bere baitan. *Nereari* basoari erreparatzen dion folk goxoa

Zuhaitzak ez du beldurrik

XABI SAN SEBASTIAN

Belarri, 2017



erdi zen, baina taldearen indarraz rock amerikar bilakatu da. *Zuhaitza* kantuak balio du San Sebastianen abesteko sentimendua gure egiteko. *Haizea gozatzen* handia da, Neil Youngen kadentzia eta malenkonian jaio eta indioen tankeran erotuta post-rock distorsionatuan biderkatuta. *Basamortu epel* zine-matografikoa da erabat, kabaretero-rockeroa. *Itsaso gureak* marinelen omenez idatzitako eresia, rock gihartsu, itsaskor eta bizia. *Ametza*-k asko du San Sebastianen umoretik, probokaziotik eta 70eko hamarkadako rocketik. *Ikusezina*, aldiz, akustikoan biluztean datza. *Esk* erromeriatarako pieza transgresorea da. *Atea*, berriz, *hillbilly*-a, 70eko rocka, Iparraldeko kantagintza eta Afrikakoa batzeko ariketa. Eta, postre gisa, sorpresa goxoa. ■

Xabi San Sebastian
musikari eta
abeslaria
(Donostia, 1967).





65

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

SAIL OFIZIALA

Desastrearen, emakumeen eta *Handiaren* Zinemaldia



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Inporta duena, azkenean, pelikulak dira: aitortu beharko da, behin Donostiako Zinemaldiaren 65. edizioa bukatuta, aurtengo Sail Ofizialaz ez geneukala aurreikuspen onegirik, apenas baitzegoen zuzendari ezagunik lehiatzen ari ziren filmen artean. Eta festibalaren lehenbiziko egunetan, pelikula bat ikustetik irten eta hurrengorako ilaran, entzun izan da prentsak ez ziola beste urteetako jarraipenik egingo –“honek ez du saltzen” eta antzeko arinkeriak esaten ditugu batzuetan–. Asteak aurrera egin ahala, ordea, batezbesteko maila onari buruzko komentarioak nagusitzen joan dira –kazetari honek gogoratzen dituen edizioetatik, izan ere, akaso aurtengoa da Sail Ofizialean proposamen interesgarrienak izan dituenak–.

Palmaresa eskuan, hiru dira nabarmentzeko kontuak:

Bat: James Francoren *The disaster artist*-ek irabazi du Urrezko Maskorra, frakaso zinematografikoari buruzko pelikula dibertigarri batekin, zeinak, harrera oso ona izan duen arren, ez



Sari banaketaren galan, irabazleak eta epaimahaikideak.

zeukan lekurik kiniela gehienetan. Komedia batek askotan izaten du *handicap*-a sariei begira, badirudi oraindik tonu larriek metro batzuetako aldearekin egiten dutela korri festibaletan. “Historiako pelikularik txarrena” ei den *The room*-en errodejara pantailaratuz, Francok aldarrikatu du gaizki egindako ekoizpenek zinemaren historian merezi duten lekua.

Bi: Emakumeen Sail Ofiziala izan da aurtengoa. Besteak beste, buruhauste handiak izango zituen epaimahaiak emakumezko aktore onenaren saria nori eman erabakitzeko, maila apartekoa izan baita. Azkenean Argentinara joan da, Sofia Galak *Alanis* filmean jokatu duen prostitutaren rolagatik; eta film beraren zuzendariak, Anahí Bernerik, irabazi du zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra ere. Sari-emate ekitaldian esan zuten, lehenbiziko aldian zen emakume batek sari hori eskuratu zuena. Ez da hala, bigarrena da 2004an saritu zuten Xu Junglei-ren ondoren. Baina 65 edizio bete dituen jaialdi ba-

tean, datuak balio beharko luke eztabaia abiatzeko: ez ote dago joera maskulinizatzaile nabarmen samarra kalitate zinematografikoa baloratzen denean?

Hiru: Aitor Arregiren eta Jon Garañoren *Handia*-k Epaimahaiaren Sari Berezia eskuratu du. Euskarazko lan batek inoiz ez zuen horrelako errekonozimendurik jaso Donostiakoaren maila daukan zine-jaialdi batean. Moriarti etxeko egileek hazten jarraitzen dute, gure XIX. mendeko istorio baten unibertsaltasuna aldarrikatuz, bere-berezkota duten filmak egiteko estiloa galdu gabe. Kontu batek mingostu zuen, pixka bat, sariaren poza: Garañok aurreratu zuen beraien hurrengo proiektua Andaluzian koproduzitua izango dela, gaztelaniaz. Egileen hautua da, errespetatzea besterik ez dago; baina balio du gogora ekartzeko gure zinegile puntakoenek ere ezin dutela beti hemen euskaraz lan egin. Eta erakunde publikoek badute ardura bat horretan, haiei dagokie erraldoi honen oinak buztinezkoak ez bihurtzea. ■

» Irakurri Zinemaldiko pelikulen kritikak
www.argia.eus/zinemaldia-2017 helbidean.

PUBLIKOAREN SARIA

Barretik negarrera



Mikel Garcia Idiakez
 @mikelgi

Jendeak barre egin nahi du, eta negar; sentitu, emozionatu. Beharbada horregatik irabazi du tragikomedia batek Publikoaren Saria. Tragikotik eta komedia beltzetik baduelako *Three billboards outside Ebbing, Missouri* di-bertigarri bezain latzak. Barretik negarrera eta negarretik barrera trantsizioa natural egiteko, ongi harilkaturiko istorioa eta gidoi irmoa beharrezkoak dira, eta horiexek ditu oinarri Martin McDonagh-ek zuzendu eta idatzitako filmak. Iluna da *Three billboards*, sarkastikoa, zinikoa, ahobilorik gabe poliziaren torturez, arrazismoaz, minbiziaz edota Elizaren pederastiaz hitz egiteko gai; AEBrik ankerrena irudikatu du zuzendariak. Sakonean, mezu garbia, gorrotoak gorroto gehiago dakarrela, eta aurpegia ematen, Frances McDormand aktorea, ohi bezain fin, alabaren hiltzailea aurkitu arte amore emateko



"Three billboards outside Ebbing, Missouri" filmak lortu du Publikoaren Saria.

asmorik ez duen emakume indartsuaren rolean.

Aurten, Publikoaren Sarirako hautagaien artean Frantziako Estatuko produkzioek utzi dute arrastoa. Horren lekuko, nabarmenezko moduko hiru istorio: giro burgesean, bi mutilen arteko amodio ezkutuaz mintzo zaigu *Call me by your name* ederra, sotila, sentsibilitatez betea. Indarkeria matxista du abiapuntu *Jusqu'à la garde* lanak (publikoak bozkatuta Europako pelikularik onenaren saria lortu duena): banandu ostean, emazte ohiari presio egiten jarraitzeko gizonak semearen zaintza partekatua eskatuko du. Erritmoak ondo neurtuta, tentsioa handitzen doa pixkanaka, ileak puntan jarriko dizkizun azken minutuetaraino. Frantziak Oscarretara aurkeztuko duen *120 battements par minute* berriz, sutsua, gerrillaria, pasionala da, Act Up taldearen aktibismoa bezalatsu.

90eko hamarkada hasiera da eta hiesak jende andana hiltzen du, baina Parisko aktibistak ez daude eskuak gurutzaturik geratzeko prest, instituzioetan eta laborategi farmazeutikoetan eragitea dute helburu, eta hain juxtu, aktibismoaren estrategiez, asanbladez, botere-borrokez eta iritzi kontrajarriez lezio interesgarriak ematen ditu filmak. Dinamika ongi orekatua da istorioaren funtsa: ikusezin izateari utzi nahi duen kolektiboaren borroka bizi eta beroa batetik, hiesak kutsatutako gaixoaren gainbehera geldo eta saihestezina bestetik.

Eta azken gomendio bat, tenisa maiete dutenentzat, edo kirolaren epika gogoko dutenentzat, edo besterik gabe pelikula on bat ikusi nahi dutenentzat: *Borg/McEnroe*, bi tenislari handi, bi izaera berezi bezain kontrajarri eta hil ala biziko norgehiagoka gogoangarri bat berreskuratu dituen filma. ■

Nicolás Olea. Kutsadura kimikoaz kezkatutako medikua



Nicolás Olea medikuntza katedradunak hamarkadak daramatza disrupzio endokrinoa aztertzen. Hau da, gure sistema hormonalean eragiten duten eta nonahi ditugun substantziez du ardura. Osasun publikoko arazo handi horri behar bezalako irtenbiderik ez ematea salatzen du, eta mezu horrexekin etorri zen Bilbora iragan irailaren 25ean.

“Ebidentzia nahikoa dago kutsatzaile hormonalen kalteez, garaia da neurriak hartzeko”



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZIAK: ARITZ LOIOLA

Istripua laborategian

“Beti erakarri nau sistema hormonalarekin zerikusia duen minbiziaren gaiak, eta horretaz egin nuen doktore-tesia, 1979an. Urte batzuk geroago, 1987an, AEBetan lanean nengoela, laborategian izandako istripu batengatik konturatu ginen plastiko batek aktibitate hormonalak zuela. Hura ez zen posible, plastikoak inerte behar du, baina hantxe zegoen plastiko hura. Susmoak piztu ziren eta konturatu ginen fabrikatzaileak plastikoari gehitutako antioxidatzaile bat zela kausa. Haritik tiraka aurkitu genuen jarduera hormonalak zuten konposatu ugari”.

Europar aitzindarietako izan omen zinen kutsatzaile hormonalen gaia aztertzen.

Bai. 1996an antolatu zen Europar gaiari buruzko lehen zientzialari biltzar handia. Ordurako, ingurumen zientzietan adituek, biologoek... oso informazioa baliagarria zuten disrupzio hormonalak naturan eragindako ondorioez, animalia espezie ugarietako adibideak zituzten. Eta gaur egun disrupzioa oso ezaguna da zientzialariengan. Jarduera hormonalak duten konposatu asko daude, plastikoe-tan, arropetan, kosmetikoetan... eta noski pestizida eta ongarrietan. Ez daude sailkatuta minbizi-eragile edo mutazio-eragile modura, baina disruptoreak dira, sistema hormonalak eraldatzen dute, eta kalte egiten diote osasunari.

Baina, lehen esan didazunez, gaiak ez du oihartzunik, eta ez da neurri egokirik hartzen.

Are ebidentzia gehiago eskatzen dute eta. Disrupzioaren mekanismoak ebidentzia gehiago behar dela esaten dute. Nik beti esaten diet berdin dela zenbat diru jartzen duten, zenbat ikertzen du-

ten, ez dutela ebidentzia handiagoa lortuko, daukagun ebidentzia estatistikoa izugarria da, eta mekanismoak buruz ere asko dakigu. Daukaten informazioarekin, aspaldi hartu behar zuen erabakia.

Europako Batzordeaz ari zara, zehazki?

Bai. Han eta Europako Parlamentuan hartzen dira erabakiak, lobbyak dauden lekuan hain zuzen. Eskandalua da. Europako Batzordeak konpromisoa hartu zuen 2015erako disruptore endokrinoak identifikatzeko testak –derrigorrez egin beharrekoak– prest izateko, baina pasa zen 2015, gero 2016, eta ezer ez; azkenik, Suediak prebarikazioagatik salaketa ipini zion Batzordeari Europako Auzitegian. Baita irabazi ere. Aizu, 21 urte daramatzagu gaiaz hitz egiten!

Informazioa sobera dute politikariek dagoeneko.

Jakina. Badakizu zenbat ikerketa proiektu dagoen? Nik erakunde guztietatik jaso dut diru pilo bat, aldizkari zientifiko puntakoetan argitaratu dugu, baina gero ez badute beraiek finantzatutakoa irakur-



Bilboko Medikuzientzia Akademiak antolatutako Medikuntza Astearen 44. edizioan lehen hizlaria izan zen Nicolás Olea. 'Osasuna eta kutsadura: Epidemia isila' izan da jardunaldien aurtengo goiburua.

tzen... Ez da ebidentzia gehiago lortuko, nahikoa dago jada, orain behar dena da ausartak izan eta kontsumitzailea babes-tuko duten erabakiak hartzea. Zuhurtzia printzipioak fabrikatzailea behartzen du bere produktua kaltegarria ez dela frogatzera, ez dagokio kontsumitzaileari demostratzea zerbait arriskutsua dela. Horren arabera egin beharko lukete araudia. Baina ez ikusiarena egiten dute.

Zergatik?

Ez dakit. Seguruenik ez direlako arazoa-ri aurre egiteko gai, ez dutelako tres-na egokirik, ekoizleek esaten dutelako gehiegizko zuhurtzia lehiakortasunari kalte egingo liokeela...

Aurreko galdera egin dizut horrelakoetan beti aipatzen delako lobbyen presioa.

Bada, ni ez naute sekula presionatu, ez alde batera ez bestera. Asko inporta ez dien seinale, agian.

Ebidentzia egon badagoela diozu. Komunitate zientifiko guztia dago gai honetan ados?

Oro har bai, arazoa medikuen artean dago, oraindik ez dira konturatu. Tira, bai, batzuk hasi dira: lehenbizi pediatriak, gurasoek galdetzen baitiete ea zer gertatzen den plastikozko biberioekin eta abar. Eta informazioa bilatzen hasi behar dute, hori ez zegoelako euren liburuetan.

Dena den, zientzialariena galdetu dizut zientzia blog bat baino gehiago dagoelako jendartearen kimiofobia hedatzen ari dela azaltzen, esaten gehiegizko alarma ari dela sortzen oinarri zientifikorik gabe...

Ez dakit, ez naiz inoiz joan hori diotenekin eztabaidatzera. Niri joko honen arauak irakatsi zizkidatenean, esan zidaten parekoek errebisatutako aldizkarietan argitaratu behar nituela ikerlanak, eta urtero 15-20 lan argitaratu ditut punta-puntako aldizkarietan. Nirekin eztabaidatu nahi duenak maila bera badu, ongi; baina batzuetan eztabaida baterako proposatu didaten beste pertsonaren curriculumari begiratu eta konturatzen zara ez duela ezertxo ere egin azken hamar urteetan. Okerrago: joan izan naiz Europako Legebiltzarrera

nire ikerketen berri ematera, eta parean jesarrita eduki dut seguruenik nirea hamar halako soldata zuen bat, esaten ari nintzena egia ez zela erantzunez, gero gauean, garagardo bat hartzen, urte bi lehenago auto konpainia baterako lanean zebilela aitortu didana.

Nonahi ditugu kutsatzaile hormonalak, zer egin dezakegu herritarrok?

Gaiak atsekabea sortzen du jende arruntarengan, ez da irtenbiderik ikusten. Batetik, ordezkari politikoei eskatu behar zaie gaia beren agendan sartzeko. Bestetik, kontsumitzaile modura eragin dezakegu. Badakizu nor ari den erabakitzen Espainia hegoaldeko *cherry* tomateei zein pestizida ipini, eta biltzen dituztenei zer soldata ordaindu? Ingalaterrako supermerkatuetako bezeroak. Haiek esaten dute: langileek soldata duina behar dute, eta tomateak modu osasungarrian landu behar dira, halako edo bestelako pestizida bota gabe, araudiak baimendutakoa izan arren. Bestela ez dute erosten. Eta ikuskatzaileak bidaltzen dira baldintza horiek betetzen direla behatzeko. ■



AZKEN ORDUKOA

Katalanak ez omen dira espainiarrak

Istilu Franco izan dira Katalunian demokraten eta besteen artean. Hango herritarrek borra kolpeak hartzeko zaletasun makurren bat dutela baztertuta –gauza arraroagoak ikusi dira, zer nahi duzue–, Beranduegi Xavier Letonia nazioarteko berriemaile oso berezia igorri du Bartzelonarat, ea jakiterik duen nondik datorkien katalanei Espainiako demokrazia eredugarriari aurre egiteko tema hori.

Erantzunak txunditu egin gaitu: “Ez dut dena harrapatu, arraro hitz egiten dutelako, L-ak asko markatuz eta hola, baina ulertu diedanaren arabera katalanak ez dira espainiolak, eta horregatik antolatzen dituzte anabasa hauek”, azaldu digu Letoniak telefono kabina batetik.

Bestalde, Euskal Herriko karrikak jendez betetzen hasi dira berriro, denak Kataluniara joan eta gero. Han ibili den ARGIAko kazetari baten esanetan, “hun-



Espainiako demokrazia dosien banatzaileek muga guztiak ganditu zituzten Mari Jaiaren kontra jo zutenean.

kigarria izan da!; irrikan gaude aldizkari-ko azalean letra handiz Independentzia idatzia ahal izateko berriro”. Airbnb-k esker oneko mezua bidali die Kataluniara joan diren milaka euskaldunei. “Nahiago erreferenduma, turismoa baino” esan dute.

SAREAN ARRANTZATUA

Benetako fatxada bat



Eta zu... ilargiari begira



Kantu Bat Gara
@KantuBatGara

Hemen gaude
ta poztutzen naiz
ta ziur zure aita ere bai
"Lau teilatu", Itoiz



‘Handia’-ren arrakastaren ondoren, NBAko hainbat talde protagonistan interesatuta

Telefono deiak jasotzen hasi da Eneko Sagardoy, *Handia* filmean Migel Joakin Eleizegi “Altzoko Handia”-ren papera jokatzeko duen aktorea, filma estreinatu denetik. “Chicago Bulls taldekoek deitu zidaten lehenbizi, pibot baten bila dabiltzala eta ea interesatuta nengoen. Geroztik Lakers eta Celtics ere etorri dira galdezka”. Prestakuntza fisiko gogorra egin du Sagardoyk filmerako, besteak beste, dieta berezi bat, 2,27 metroko altura lortu ahal izateko. “Errodajeen nengibela Gipuzkoa Basketekoaren artean ere deitu nuen, baina jokatzekotan, benetako saskibaloi talde batean aritu nahi nuke, ez txitxinabozko batean”, azaldu du Sagardoyk.



Eneko Sagardoy, ezkerretik bigarrena, Handiaren errodajeen.



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

ARGIA EGUNA

TXIKITIK ERAGITEN

GASTEIZ, URRIAK 7

- 10:30** OroiTour, memoriaren ibilbidea*
- 11:00** Gasteiz Euskaldunaren ibilbidea*
- 12:00** Jolas hezitzaileak
- 12:30** Argiazaleen topaketa
- 14:30** Herri bazkaria, produktu ekologiko eta hurbilekoekin*
Prezioa: 15 euro (12 euro langabetu, ikasle eta langile prekarioentzat)
- 16:30** Monologoa: Mirari Martiarena
- 17:30** Euskal Herriko IV. nortasun agiri arrotz
jaurtiketa txapelketa
- 19:00** Kontzertua:
Txalainak (Hertzainak-en bertsioak)
Jon Basaguren

Lekua: Landatxo / Kontzertuak: Gaztetxean

*Ibilaldi gidatuertarako eta bazkarirako izena emateko, deitu 943 371 545era
edo idatzi komunitatea@argia.eus posta elektronikora.

Jakoba Errekondoren landareen kontsultategia Bionekaraba azokan (Foru Plaza)